

AIARALDEA *hemen*

Aiaraldea Ekintzen Faktoriarena



Feminismoa, dena aldatzeko

MARTXOAREN 8AK MILAKA EMAKUME* ATERA DITU KALERA

kronika



Martxoak 8, leku oro feminismoaren lekuko

Emakume Langileen Nazioarteko Eguna dela-eta, mobilizazioz eta aldarri feministaz jantzi zen atzo Aiaraldea. Artiach eta Madres Mercedariasen elkartasun ekimenak egin zituen Aiaraldeko Mugimendu Feministak.



Testua **Izar Mendiguren Cosgaya**

Puxika bailitzan, lotuta eta hegaka ospatu zuten eskualdeko emakumeek* 2022ko martxoaren 8a. Hala antzeman zitekeen atzo, Orozkoko Artiach fabrikaren aurrean Mugimendu Feministak deituriko mobilizazioaren irudian. Nola instituzioek hala eragile feministek, makina bat ekitaldi antolatu zituzten, tokian toki.

Ikasleak izan ziren lehenbizikoak kalera ateratzen. Hain zuzen, 12:00etan burutu zuen elkarretaratzea Aiaraldeko Ikamak, 'Feminismoa, hezkuntza sistema aldarrikatzeko' lemapean. Ehunka gazte bildu ziren mobilizazioan, horien artean, Ekhiñe Lopez Olabarria Ikamako kidea. Arrazoiak argi ditu: "Feminismoa beharrezkoa da hezkuntza sistema aldatzeko. Denek hitz egiten dute feminismoaz, baina feminismitik eta feminisemorantz doan hezkuntza sistema behar dugu ikasleok".

Eskualde ekimenak Orozkon

Orozko Artiach fabrika izan zen Mugimendu Feministaren eguneko lehen geldialdia. 100 greba egun baino gehiago daramatzate lan hitzarmena aldarrikatzen bertan. Horietako bat da Josune Perez Hernandez Artiacheko grebalaria: "Toki desberdinetako Aiaraldeko emakume asko elkartu gara Artiach enpresari lan hitzarmen duina eskatzeko, egungoa ez baita justua. Badakigu hitzarmena hobetzeko dirua soberan dutela". Elkartasun ekimen inguruan, jasotako babesa eskertu zuen Aiaraldea Komunikabideari eginiko adierazpenetan: "Tubacexen egin bezala, laguntza eta babesa eskatu genion Aiaraldeko

Mugimendu Feministari, langileak gaur fabrikara sartzea eragozteko". Ondoren, Ibarra auzoko (Orozko) Madres Mercedarias zentrorajo zuen pikete feministak, bertako emakume grebalariei babesa adieraztera. "Kapitalak eta patronalak zapaldu egiten gaitu, eta egoera prekarizatu. Espero dugu borroka hauek gure lan bizitza sostengarri bilakatzen laguntzea", adierazi zuten Orozkoko Zubiaur plazan eginiko hitzartzean Ibarra zaintza langileek. Halaber, Orozkon egin zuen Aiaraldeko Mugimendu Feministak eskualdeko mobilizazioa, 17:00etan.

Herrietan, hamaika ekintza

Arratsaldean, berriz, bailarako herrietan zentratu ziren mobilizazio gehienak. Laudion, 17:30ean jarri zuten hitzordua, Herriko plazan. Txokolate jana eta material salmenta egin zuten arratsaldearen lehen zatian, Laudioko Udalak iazko martxoaren 8ko kartelak jartzeagatik 4 kide zigortu baitzituen 3.000 euroko isunarekin. Ondorioz, elkartasun poltsak saldu zituzten babes soziala eta ekonomikoa lortzeko. Etawasoleko emakumeek, euren aldetik, Saharako ahizpek bizi duten gatazka ekarri zuten gogora, performance bidez. Iluntzean, dantza eta manifestazioa izan ziren nagusi, ehunka herritar bertaratu zirelarik.

Amurrioren, berriz, Amurrioko Emakumeen Sarea aurkeztu zuten 12:30ean Juan Urrutia plazan, etorkizuneko Emakumeen Etxea sortzeko helburuarekin. Arratsaldean, aldiz, Amurrioko Mugimendu Feministaren manifestazioak bete zituen kaleak.

Urduñan, Parekidetasun Batzordeak egun osoko ekintza maratonia osatu zuen. Abesti

feministekin dantzan hasi zuten goiza, eta bingoarekin eman zioten segida arratsaldean. Horrez gain, Aiaraldeko Mugimendu Feministaren historia erakusketa kokatu zuten Foru plazan. Beste hamaika jarduera ere egon ziren hirian: txokolate jana, Kaitin Allenderen bakarrizketa emanaldia, Loralde elkartearen bazkaria, 'Ni neu nirekin' ipuin kontalaria, pankarta eustea...

Artziniegan, ostera, 'Lorategi feminista' atondu zuten. Artziniegako Talde Feministak proposatu zuen ideia, eta historian zehar erreferentetzat hartutako emakumeei aitortza egin zieten horrela. Zehazki, herri sarrerako iturria bilakatu zuten memoriaren lorategi, aitortza soziala eta kolektiboa uztartuta. Ekitaldia ere egin zuten, loreak landatu eta zenbait abesti kantatuta. Koro feministaren laguntza izan zuten horretarako.

Arespalditzak ere ekimen berritzailea plazaratu zuen: Aiarako Gune Feminista. Sustatzaileen esanetan, aspaldikoa zen ideia. Koronabirusak eragindako pandemiak, baina, atzeratu egin du egikaritzea, atzo arte. Hala, Ferialeko zelaian kokatu dute eremua. "Panel bat da, Mugimendu Feministaren albiste eta deialdiak partekatzeko", erantsi dute. Horrez gain, buzoi bat ere ipini dute, "salaketak, iradokizunak edo hausnarketak jasotzeko". Aurreratu

Aiaraldeko Mugimendu Feministak elkartasun ekimena egin zuen Artiach fabrikan eta Madres Mercedariaseko egoitzan. Orozkon izan zen, halaber, eskualdeko manifestazioa

dutenez, espazio horretan elkartuko dira bileretarako, "emakumeei ikusgarritasuna emateko".

"Sistemari sua"

Ekitaldiko hitzartzeetan antolakuntza feministaren garrantziari heldu zioten, batik bat. "Itzuli gara, naiz eta sekula ez garen joan. Antolatu gara, sareak josi, herri eta auzoetako lanetara itzuli. Urte hauetan barre, negar, dantza egin dugu; baina gaur hemen gaude berriro, 'Zapaltzen gaituen sistemari sua, antolakuntza feminista gara!' lemapean", argitu zuten Laudoin. Hain zuzen, lelo hori izan du 2022ko martxoaren 8ak Euskal Herriko Mugimendu Feministarentzat. "Sistema honi su eman nahi diogu, nazkatuta gaudelako erailak, erasotuak... izateaz. Ezin dugu onartu emakume* bakar bat gehiago erailteza, gure gaineko indarkeriak gure bizitzetan jarraitzea".

Ildo beretik, egungo sistema ereduajanezina dela azpimarratu zuten: "Egunero zapaltzen, erasotzen eta erailten gaituen sistema heteropatriarkal, kapitalista, arrazista, kapazitista hau kiskali nahi dugu. Jendartearen zati handienarentzat eta, bereziki, emakumeontzat zein sexu-genero disidenteontzat, kriminala eta jasan ezina den eredu honekin bukatu nahi dugu".

Madres Mercedariaseko

Artziniegako Lorategi Feminista, Aiarako Gune Feminista, Aiaraldeko Mugimendu Feministari buruzko erakusketa... Ekimen ugari aurkeztu zituzten martxoaren 8an

emakumee ere hartu zuten hitza, Laudioako manifestazioan. Esker eta borroka mezuak luzatu zituzten. Ekitaldia amaieran antolatzeko beharra nabarmendu zuten, feminismo anitzaren alde: "Gure feminismoa anitza eta emakume zein gorputz disidente guztioi irekia izan behar da. Lagunak, ahizpak, amak, auzokideak, lehengusinak... Olioza dezagun makineria, ez gaitzen egun soltean geratu, antola gaitzen dena aldatu eta kaleak betetzen jarraitzeko, denak aske izan arte".

Ekitaldi instituzionalak

Irakurketa edota adierazpen instituzionalak goizean izan ziren, oro har. Hala ere, arratsaldean pilatu ziren, tokian toki, elkarretaratze instituzionalak. 18:00-20:00 bitartean mobilizatu ziren Amurrión, Laudion, Okondon, Arespalditzan, Artziniegan, Orozkon eta Urduñan. Aiaraldea Komunikabideak egun osoaren jarraipen berezia egin zuen. Irudi eta eduki guztiak aiaraldea.eus atarian daude ikusgai.

Bestalde, Bor-bor elkartearen eskutik, Aiaraldeko Mugimendu Feministaren historiari buruzko erakusketa ibiltaria batetik bestera mugituko dute datozen asteetan: 13an Okondon eta Artziniegan jarriko dute ikusgai, eta martxoaren 25etik apirilaren 5era Orozkoko Museoa.



Artiach eta Madres Mercedariaseko emakume grebalariekin egindako elkartasun ekimenak irudi ikusgarriak utzi zituen. aiaraldea.eus

argazki erreportajea

Feminismoaren balio eraldatzailearen indar Mercedarias egoitzako emakume grebalariekin erakustaldi berri bat egin zuen Aiaraldeko egindako elkartasun ekimenak eta iluntzeko Mugimendu Feministak atzo. Artiach eta Madres mobilizazioek irudi ikusgarriak utzi zituzten.

Prekarietatearen aurrean, borroka feminista



Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Tubacexeko pikete feministako lekukoa hartuta, Orozko izan da aurtengo martxoaren 8ko epizentroa. Artiach gaileta fabrikako eta Madres Mercedarias egoitzako lan gatazkek markatu dute azken hilabeteetako agenda herrian, eta emakumeen nazioarteko eguna baliatu dute euren borrokei bultzada berri bat emateko. Aiaraldeko Mugimendu Feministak ere

elkartasuna adierazi die bi lantokietako emakume grebalariei.

Borroka feminista aldarrikatu dute lan baldintza duinen aldeko eta prekarietatearen aurkako lanabes.

Harreman estua garatu dute hilabete guzti hauetan Artiacheko langileek eta Ibarrako zaintzaileek. Elkar elikatu eta aurrera jarraitzeko indarrak trukatzan dituzte. Atzokoa horren beste adibide bat izan zen, determinazio

dosi berri bat, feminismoa ardatz.

Kaleak hartzeko unea

Goizeko indar erakustaldiak arratsaldeko mobilizazioetan izan zuen segida. Ehunka emakume atera ziren Aiaraldeko kaleetara, oraingo honetan "bizitzak sostengatzeko ezinbestekoak" diren zaintza lanak erdigunean jarri, eta "kapitalismo estraktibistarekin" amaituko duen gizarte eredu berri baten beharra aldarrikatze.



argazki erreportajea



argazki erreportajea



AMURRIOKO EMAKUMEON* SAREA

Hilabeteko sukalde lanaren ondoren, martxoaren 8an aurkeztu dute Amurrioko Emakumeon* Sarea. Egitasmoak udalerriko emakumeak elkartu eta "bizitzeko beharrak definitzeko" prozesu parte hartzailea abiatzea du helburu. Hilabeteko lehenengo astelehenetan elkartuko da Amurrioko Emakumeon* Sarea aurrerantzean, arratsaldeko 17:00etan Etxegoiengo gelan.

argazki erreportajea



herriz herri

Aiaraldea

Aiaraldeko Euskararen Eguna ekainaren 4an ospatuko dute

Testua
Aitor Aspuru Saez

Aiaraldeko Euskararen Eguna data berria dauka jadanik. Zehazki, ekainaren 4an ospatuko da. Antolatzaileek jakinarazi dute laster informazio gehiago zabalduko dutela, jatorrizko egitarauan aldaketak egongo baitira.

Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak, Aiarako Kuadrillak, Aiarako Udalak eta Luiaondoko Administrazio Batzarrak lan handia egin zuten abenduaren

4an euskararen erabilera sustatzeko jaia antolatzeko, baina, tamalez, eguraldiaren iragarpenak eta COVID-19 birusaren pandemiaren bilakaerak beharrezkoa egin zuten ospakizuna bertan behera uztea.

Hala ere, antolatzaileek konpromisoa hartu zuten geroago deitzeko Aiaraldeko Euskararen Eguna, eta hitzari heldu diote. Berez, hasierako asmoaren parametro bera jarraiki prestatuko dute ekaineko egitaraua, baina, momentuz, ez dute ezer aurreratu horri buruz.

PSE-EEK leporatu dio EH Bilduri Renfeko tren zerbitzuaren erreputazioa kaltetzea

Testua
Aitor Aspuru Saez

PSE-EEK "oportunistatzat" jo du EH Bilduk azken asteotan egin duen salaketa kanpaina Renfeko C-3 lineako tren zerbitzua dela eta. Koalizioak elkarretaratzeak antolatu eta mozioak aurkeztu ditu hainbat udaletan eta zinegotzi sozialistek -David Romerok eta Loli Murielek- oharra plazaratu dute aldarrikatzeko Espainiako Gobernuak inbertsioa egin duela azpiegitura normaltasunera itzultzeko.

Romerok eta Murielek defendatu dute PSOEk konpromisoa erakutsi duela Aiaraldearekin, baina ez dute ukatu pandemian eragozpenak sortu zaizkiela erabiltzaileei. Hala ere, ukatu dute zerbitzua eten denik edo inbertsioak egiteari utzi zaionik.

Kontratazioak eta lanak

Zentzu horretan, sozialistek aldarrikatzen dute Aiaraldeaizan dela Arabako lehen lurraldea zeinean pandemia aurreko zerbitzuaberreskuratuen eta azpimarratu dute ahalegina egin dela horretarako: "58 gidari berri eta 34 agente komertzial kontratatu dira eta lan deialdi publikoa aurreikusi dute".

Inbertsioei dagokienez, zinegotziek aipatu dute Pedro Sanchez Moncloara heldu zenetik ia 5 milioi euroko gastua egin dela eskualdeko azpiegiturretan; Urduña eta Amurrio arteko zubian, Amurrioko geltokiko irisgarritasunean eta Laudioko geltokiko modernizazioan, besteak beste.

Azkenik, PSE-EEK ordezkariek leporatu diote EH Bilduri ez duela aipamenik egin trenetan gertatu diren erasoei buruz.

ASASAMen aldeko bazkari solidarioa egingo dute 'Ametsen Hariztian'

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

ASASAM elkarte ekonomikoki laguntzeko bazkari solidarioa antolatuko dute datorren martxoaren 27an, Kexaako Arcos de Quejana jatetxeko 'Ametsen Hariztian'. Bazkariak 60 euroko prezioa izango du eta lortutako dirua elkarte finantzatzeko baliatuko da.

Izen emateko nahikoa izango da 944034690 edo 946726446 telefonoetara deitu eta erreserba egitearekin. Nahiago duenak

mezu elektronikoa ere bidal dezake info@asasam.org helbide elektronikora.

Kexaako hitzordura bertaraterikizango ez dutenei ere zabalduko diete ASASAM elkarte laguntzeko aukera. Horretarako, menua erosteko aukera jarri dute, bertaratu ez arren, bai eta diru ekarpenak kontu korrontean egiteko aukera ere. Hau da ekarpenak egiteko kontua: ES25 3035 0045 27 0450018196.

Hariztira bisita

Bazkariaren aurretik 'Ametsen

Hariztia' bisitatuko dute. 2021eko ekainean inauguratutako eta Arcos de Quejana jatetxeak sustatutako proiektua da. 25 artistek margotutako 25 haritzek osatzen dute espazioa, eta margotutako zuhaitz bakoitzagobernuzkanpoko erakunde edota fundazio batekin lotuta dago.

Hain zuzen ere, buru osasun arazoak dituzten pertsonen eta senideen Aiaraldeko elkarteari eskaini zion Jose Abel artistak hariztian margotu zuen zuhaitza. 'Lastargia eta bosgarren elementua' da obra horren izena.



MARIA ANGELES ARBAIZAGOITIA

ASASAM ELKARTEKO LEHENDAKARIA

Buru osasuna bermatzeko zaintzaren alde lanean jarraituko dugu

ASASAMen helburuetako bat da buruko gaixotasunen bat duten pertsonen eta haien familien eskubideak defendatzea. Eta hori da, hain zuzen ere, 30 urte baino gehiago egiten daramaguna. Denbora asko daramagu Arabako Foru Aldundiari eskatzen Aiaraldea ikuskapen handiko etxebizitza komunitario bat martxan jar dezan. Sinadurak bildu ditugu, behin baino gehiagotan hartu dugu hitza Arabako Batzar Nagusietan eta elkarrizketa eta bilerak egin ditugu alderdi eta talde politikoei baliabide hori eskatzeko. 2019an bazirudien azkenean lortu genuela. Gure harridura etorri zen Emilio Solak, Arabako gizarte-zerbitzuetako egungo diputatuak, esan zigunean ez zuela baliabide horren sorrerari buruzko berririk, Marian Olabarrietak (bere aurrekoak) ez ziola etxebizitza komunitario horrekin lotutako ezereen berri eman.

Orduetik hona, egin behar duguna egiten jarraitzen dugu, hau da, erakundeei ikuskaritza handiko etxebizitza bat sor dezaten eskatzen. Baliabide hori, gaur egun, ez dago eskuragarri Aiaraldea gaixotasun mentala duten pertsonentzat. Batzar Nagusietan hartu dugu hitza berriro, Emilio Sola diputatuarekin batzartu gara behin baino gehiagotan, eta badirudi, azkenean, 2022ko abenduan jarriko duela Aldundiak baliabide hori martxan.

Oso pozik gaude aurrerapen horrekin, baina egoera gazi-gozoa da. Izan ere, jakinarazi zigutenean azkenean ikuskaritza handiko etxebizitza komunitarioa martxan jarriko zela, aldi berean jakinarazi ziguten aurtengo azaroan amaiera emango ziotela 2007tik kudeatzen ari garen ostatu-hitzarmenari. Hitzarmen horren bidez, gaixotasun mentala duten 3 pertsona artatzen dira ikuskapen txikiko etxebizitza komunitario batean, eta beste bederatziri laguntza ematen zaie, bizitza independentea egin dezaten.

ASASAMeko kideok erabakia ulertu gabe jarraitzen dugu, funtzionatzen duen baliabide bat delako. Gaure egun, etxebizitzak 2 plaza ditu okupatuta, eta Diputazioaren ebazpenaren zain gaude hirugarrena okupatu ahal izateko; eta bizitza independenterako hezkuntza-laguntzei dagokienez, 9 plazak daude beteta. Gainera, beste pertsona batzuei zuzenduta dago. Izan ere, baliabide berria eskuratu behar duten pertsonen askoz laguntza-premia handiagoa dute, gaur egun nolabaiteko autonomia duten pertsonekin alderatuta.

Erabaki horren aurrean, Diputazioarekin hitz egiten gabilta. Badirudi, azkenean, aukera izango dugula egun dugun ostatu-hitzarmena Aldundia oraintxe bertan garatzen ari den bizitza independentea babesteko zerbitzuetan kokatzeko.

ASASAMen birmoldaketa-proiektua prestatzen ari gara, eta espero dugu Diputazioak onartzea, goi-mailako ikuskaritzako etxebizitza komunitario berria irekitzea ez dadin lotuta egon Aiaraldea gaixotasuna duten pertsonen eskaintzen genien baliabidea ixtearekin.

Aiaraldea

28 milioi euro baliatuko dituzte guztira egitasmoa garatzeko. Planaren helburua izango da Aiaraldea ekonomikoki suspertzeko Eusko Legebiltzarrean adostutako dokumentuan zehaztutakoa aurrera eramatea.

33 jarduera barnebilduko ditu Aiaraldeko Beheralako Ekintza Planak



Astehenean egin zuten planaren aurkezpena, Laudioko Kasinoan. Arabako Foru Aldundia

Testua Txabi Alvarado Bañares

Aiaraldeko Beheralako Ekintza Plana aurkeztu zuten astehenean Laudioko Kasinoan. Araba eta Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak parte hartu zuten ekitaldian, Aiaraldeko alkateekin eta Aiarako Kuadrilako presidentearekin batera.

Iaz onartu zen Aiaraldeko Ponentzia Sozioekonomikoa. Hainbat erronka zehazten ziren dokumentu horretan. Helburu horietara iristeko jardura plana da astehenean aurkeztu zutena.

Planaren xehetasun nagusiak plazaratu zituzten agerraldian: 33 ekintza egingo dituzte guztira, 8 ardatzetan multzokatuta, eta 28 milioi euro baliatuko dituzte guztira horretarako. Eusko Jaurlaritzak jarriko du diru gehiena (24 milioi). Arabako Foru Aldundiak jarriko ditu beste 4 milioiak, planeko proiektuak handitzeko.

Oso egitasmo anitzak barnebiltzen ditu planak. Industrian, kulturean,

nekazaritzan, abeltzaintzan, turismoan, enpleguan, ingurumenean, hezkuntza eta ingurumenean izango dute eragina, besteak beste. Hala ere, oraindik ez dute zehaztu zenbat diru bideratuko duten proiektu bakoitzera.

Industriarako proiektuak

Suspertze ekonomikoa eta industria-dibertsifikazioa jorratuko ditu lehen ardatzak. Bost gauzak planteatzen dira alor honetan.

Alde batetik, Laudio Glass Hub proiektua dago. Laudioko Udalak iaz aurkeztu zuen ekimena, herria "Europako beiraren erreferente" bihurtzeko, material hori erabiltzen duten enprekin elkarlanean.

Deskarbonizazioa eta ingurumen-aztarna murrizteko urratsak egitea ere aurreikusi dute. Erraztasunak emango dizkiete eskualdeko enpresei, "energia-trantsizioa eta azpiegituren modernizazioa" errazteko. Lurzoru eta eraikin industrialen inbentarioa ere egin

nahi dute, erabili gabe daudenak berreskuratzeko eta jada erabiltzen diren azpiegiturak hobetzeko.

'Startup'-ak erakartzeko, sortzeko eta bizkortzeko zentro bat sortuko dute baita ere. 'Aiaraldea Industria Lab' izena jarri nahi diote proiektuari. Horrez gain, diru partida bat gordeko dute industrialdeak modernizatzeko.

Abereentzako hiltzerik ez

Nekazaritza eta abeltzaintzara bideratu dute bigarren ardatza. Planak ez du abereentzako hiltzerik bateraikitzea planteatzen. Beste gauza bat proposatzen du: hegaztiak hiltzeko zentro bat sortzeak eskualdean izan dezakeen eragina aztertzea. "Zentro horrek hegaztiak eraldatzeko tresnak izango ditu", aurreikusi du Foru Aldundiak. Horrela, produktuen errentagarritasuna handitzea eta azken kontsumitzaileengana azkarrago iristea ahalbidetuko da".

Lehensektoreari begirako beste

ekintzabatzukere iragarri dituzte: nekazaritza-enpresen hazitegia sortzea, laguntza-programak zabaltzea eta "azpiegitura berriak aztertu eta abian jartzea".

Turismoa eta merkataritza

Turismoari eta merkataritzari begirako jardura sorta zabala ere aurkeztu dute. Hau egitea aurreikusi dute: eskualdeko turismoa balioan jartzeko ekintzak, txakolin-ibilbidearen garapena, artisau-produktuen ibilbide gastronomikoa, eskualdeko museoen sarea, dorretxeen ibilbidea, Kexaako monumentu-multzoa turismo-erabilerarako egokitzea eta "ekitaldi bereziak" egitea. Aiaraldeko "marka turistikoa" ere diseinatu nahi dute, eta plan bat egingo dute eskualdeko "merkataritza eta turismoa" indarberritzeko.

Bizkaiko Foru Aldundiak, bere aldetik, ekarpena egingo du jardura horiek Aiaraldeko udalerrri bizkaitarretara ere zabaltzeko.

Kultura sektorea

Hiru ekintza aurreratu dituzte kultura-sektoreari begira. Alde batetik, Urduñako "kultura ondare berezia" zaharberritu nahi dute. Zehazki, hiru tokitan egingo dituzte esku-hartzeak: Antiguako Ama Birjinaren monumentuan, hirigune historikoko harresian eta elizaren plazan. Antzeko zerbait egingo dute Artziniegan, bertako monumentu multzoarekin.

Laudion, aldiz, jada abian dagoen antzokiaren proiektua jarri dute helburu, "kultur mailan erreferente izan dadin, eskualdeak eskaintza handiagoa izan dezan eta, zeharka, jardura sozial eta ekonomikoa sor dezan bere inguruan".

Etxebizitza sozialak

Etxebizitza publikoak lagatzea eskaintzea ere nahi dute, proiektu

sozialak garatzeko. Lankidetzahitzarmenak sinatuko dituzte horretarako, elkarrekin, irabazi-asmorik gabeko erakundeekin eta bestelako entitateekin.

Horrez gain, "adimen-desgaitasuna" duten pertsonentzako baliabide bat sortzea jasotzen du planak, erabiltzaile guztiei "laguntza-sistema integrala" eskaintzeko.

Hegaztiak hiltzeko zentro bat sortzeak eskualdean izan dezakeen eragina aztertuko dute, baina ez dute abereentzako hiltzerik bateraikitzea aurreikusten

Auzoentzako laguntzak

"Jarduketa integralak" egingo dituzte "kalteberatasun egoeran" dauden hiru auzotan: Urduñako Goikolarran eta Urduñako Landatas eta Dolores Madarian. Alokairuko etxebizitza sozialak eta zuzkidura-bizitokiak sustatu nahi dituzte, "aukera ekonomikoki gutxiago dituzten biztanleentzat".

Ingurumena

Planaren azken ardatzak ingurumena eta mugikortasuna ditu eragin-eremu. Nerbioiko Parke Lineala garatzea eta bide berdeak zabaltzea dute jomuga, besteak beste. "Disuasio aparkaleku" bat ere atondu nahi dute, ibilgailu elektrikoak kargatzeko gune batekin.

herriz herri

Arakaldo

Arakaldoko elizako teilatua konpondu dute, Udalaren eta apezpikutzaren arteko tira-biren ostean



Elizako eta arkupeetako teilatua konpondu dute. Aiaraldea.eus

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Arakaldoko elizako teilatua konpondu du apezpikutzak, azpiegituraren mantenua eta segurtasuna ziurtatzeko, baina prozesua ez da erraza izan. Udalak Aiaraldea Komunikabideari azaldu dionez, presio asko egin behar izan dute obrak abiatzeko.

Tokioerakundearen arabera, apezpikutzak ez zuen eraikina berritzeko borondate askorik plazaratu gai hori lantzeko egin zituzten bileretan. Horregatik, eraikin publikatzea proposatu zioten erakunde erlijiosoari. "Modu horretan, erabilera zibila eta erabilera erlijiosoa bermatuko lirateke", azaldu du Jabi Asurmendi alkateak. "Era honetan, Udala arduratuko zen teilatuaren konponketaz, eta baita barnealdea txukuntzeaz ere", gaineratu du.

Apezpikutzak "erabat" baztertu zuen aukera hori. Orduan, teilatua konpontzea exijitu zion Udalak, egoera arrikutsuan zegoela eta konpondu ezean txarragora joango zela argudiatuta.

Denbora asko igaro da ordutik hona; "urte eta piku", alkatearen

"15.000 euro baino ez dituzte inbertitu. Oso oinarrizko konponketak baino ez dituzte egin, ardura gaineratik kentzeko"

esanetan. Gauzak hala, elizakezer egiten ez zuela ikusita, obra exekuzio agindua bidali zioten. "Hilabete bat eman genien obra lizentzia eskatzeko. Hori behin onartuta, beste hilabete bat zuten lanak hasteko eta 4 hilabete obrak amaitzeko", azaldu du Asurmendik.

Behar dena baino gutxiago

Hala ere, egin duten obra ez da nahikoa, alkatearen aburuz. "15.000 euro baino ez dituzte inbertitu. Oso oinarrizko konponketak baino ez dituzte egin, ardura gaineratik kentzeko". Izan ere, Asurmendiren hitzetan, hasieran egin zituzten bileretan 150.000-200.000 euro arteko lanak aurreikusten zituen apezpikutzak.

Gauzak hala, Asurmendik nabarmendu du apezpikutzak ez dituela lanak bere borondatez egin, Udalak presionatuta baizik. "Izan ere, obra exekutatzen ez bazuten, isun aginduekin hasiko ginateke".

Mendeetako historia

Elizaren sorrera hertsiki lotua dago Arakaldoren historiara. Udalerria Arrankudiagaren parte zenean sortu zen eraikina, zonaldean bizi ziren bizilagunek bide luzea egin behar zutelako Arrankudiagako herri-guneraino, mezetara joateko.

Urduña

12 zuhaitz landatu dituzte Txarrazoko magalean, auzolanean

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Auzolana egin zuten asteburuan Urduñan. Dozenaka lagun bertaratu ziren Txarrazoko magalera, eta 12 zuhaitz landatu zituzten guztira. La Mesa del Arbol elkarteak proposatu zuen ekimena, eta Urduñako Auzolan lantaldearengana jo zuen horretarako. "Elkarte hori sortu berri da, eta hau izan da bere lehen ekintza", azaldu dute

Auzolan lantaldeko kideek. "Oso esperientzia polita" izan zela nabarmendu dute, "jende asko animatu zen eta asko ikasi genuen".

Iaz jarri zen abian Auzolan lantaldea. Dinamika sinplea du: hilero batzen dira, eta hurrengo hilabetean hirian zer auzolan egin zehazten dute. "Une honetan ez dugu proiektu zehatzik esku artean. Martxoaren amaieran biltzea espero dugu, eta bertan zehaztuko dugu zer egin".

Urduñako kaleak alaitu zituen Getxa Goi Txistu Taldeak, 'Lapiko Domeka' ospakizunean



Gernika plazan egin zuten, besteak beste, geldialdia. Aiaraldea.eus

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Urduñako kaleak txistu doinuekin esnatu ziren igandean. Izan ere, iazko etenaldiaren ostean, 'Lapiko Domeka' ospakizuna berreskuratu zuen Getxa Goi Txistu Taldeak. Inauterien osteko lehenengo asteburuan egiten dute ekimena, eta

txistu taldeak duela urteak berreskuratutako hiriko tradizio zahar bat da, 1960ko hamarkadan galdu zena.

11:00etan hasi zuten kalejira, eta hainbat auzune bisitatu zituzten erdiguneko kaleetan murgildu aurretik. Txistuarekin erlaziozko musika piezetatik harago, bestelako doinuak jo zituzten hiriko goiza grotzeko.

Arrankudiaga eta Zollo

Liztor asiarraren kontrako kanpaina sustatzen ari da Arrankudiaga-Zolloko Udala, herritarren laguntzarekin

Testua
Txabi Alvarado Bañares

'Arrankudiaga-Zolloko Udalak kanpaina abiatu du liztor asiarraren aurka eta horretarako herritarren laguntza eskatu du. Zehazki, iragan astean espezie inbaditzaile horri buruzko hitzaldia antolatu zuen, Bizkaiko Erlezainen Elkartearekin.

Solasaldi horretan liztor mota horren informazio ugari partekatu zuen Aitziber

Mendibil Zeberioko erlezainak. Halaber, eta udalak finantzatuta, tranpak, edukiontziak zein produktu likidoak banatu zituzten liztorrak harrapatzeko.

Txutxi Ariznabarreta alkateak parte hartu zuen ekimenean eta azaldu du bertaratu ziren Arrankudiaga zein Zolloko 14 herritarrek tranpak eraman zituztela. Dena den, konpromisoa ez da soilik liztorrak akabatzea. "15 egunero herritar bakoitza harremanetan

jarri behar da kanpainako koordinatzailearekin eta jakinarazi behar dio zenbat liztor erori diren tranpetan. Horri esker, ikertuko dute zein den animalia presentzia auzune bakoitzean eta noiz areagotzen den", adierazi du Ariznabarretak.

Udalburuak gaineratu du interesdunek oraindik izena eman dezaketela kanpainan. Horretarako, udaletxera jo behar dute eta tranpak zein produktuak eskatu ditzakete.



Udaltalde 21eko aretoan egin zuten hitzaldia, eta tranpak banatu zituzten. / T. A.

Aiara

Aiarako Udalak aurrekontuetan ekarpenak egiteko ekimena abiatu du

Testua
Aitor Aspuru Saez

Aiarako Udalak jakinarazi du parte-hartze prozesua jarri duela abian herritarrek ekarpenak egin ditzaten aurrekontuetan. Berez, aiarrak euren iritzia plazaratu dezakete udalaren esku dagoen edozein esparruriburuz: ingurumena, gizarte zerbitzuak, euskara, berdintasuna, kultura, kirola... Tokiko erakundeak banan-banan baloratuko ditu proposamenak eta udal aurrekontuetan txertatzeko aukera.

Iradokizunak egiteko aintzat hartu beharra dago proiektua bideragarria izan behar dela, eta ez dela interes partikularrak asetzeko, baizik eta interes orokorra sustatzeko. Jaso behar den informazioari dagokionez, tokiko erakundeak hurrengo nabarmendu du: "Ez da deskribapen konplexu edo teknikorik behar, baina zenbat eta xehetasun gehiago izan eta zenbat eta zabalagoa izan deskribapena, orduan eta

errazago egingo zaio Udalari hura ebaluatzea".

Edonola ere, hurrengo datuak eskatuko ditu Udalak: proposamena aurkezten duen pertsona fisiko edo juridikoaren datuak, proposamenaren izena, proposamenaren deskribapena (zergatik aurkezten den, zer helburu dituen eta zer giza talderi zuzenduta dagoen edo nori egingo dion onura), gutxi gorabeherako kostua, baldin eta badakite, eta, azkenik, beharrezko iriztitako dokumentuak erantsi ahal izango dira.

Parte hartzaileak

Ekimena bideratuta dago bi profil ezberdinak batu daitezten egitaspora. Alde batetik, Aiara erroldatutako 16 urtetik gorako edozein pertsona, norbako gisa. Bestetik, izaera juridikoa duen edozein administrazio batzar, fundazio, enpresa, elkar-teo entitate. Iradokizunak udal bulegoetan egin daitezke erregistro orokorrean idatzia aurkeztuta, edo partaidetza@aiarakoudala.eus helbidera mezua bidalita.

KO
KO-
RI
KO

HEZKUNTZA
FAK
TO-
RIA

MARTXOAK
26, zapatua
17:00etan
Faktoria



ikuskitzuna
POTXETA LOTX

"Kaleak bizirik"

> HAURRAK haiei FAMILIA

> PREZIOA: bazkideek 7,5€ // ez-bazkideek 10€

*Plaza mugatuak IZENA EMATEKO: www.faktoria.eus webgunean edo 722 22 75 32 (JULENE) telefonora deituz // kokoriko@aiaraldea.eus

herriz herri

Laudio

Elkarretaratzeak burutu zuten Laudio Ikastolan, Ipar Euskal Herrian ere "azterketak euskaraz egin daitezzen"



Ikasle, irakasle eta langileak batu ziren elkarretaratzean. Aiaraldea.eus

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Euskal Herriko Ikastolen Elkarretateak, Seaska Ipar Euskal Herriko Ikastolen Federazioak eta Azterketak Euskaraz! kolektiboak mobilizazio eguna antolatu zuten martxoaren 4an iparraldeko ikasleek azterketak euskaraz egiteko duten eskubidearen alde. Laudio Ikastolan ere mobilizatu dira iparraldeko ikasle euskaldunen alde.

Adierazi zutenenez, iparraldeko ikasleek ez

dakite oraindik baxoa eta brebeta azterketak euskaraz egiterik izango duten ikasturte honetan. Frantziako Hezkuntza Ministerioaren jarrera salatu dute. Izan ere, hezkuntza instituzioek abenduan argitaratutako zirkular batek proba akademiko batzuk euskaraz egiteko eskubidea aitortu arren, azken hilabeteetan ez da inolako aurrerapausorik egin bide horretan, eta Ipar Euskal Herriko euskal komunitatea "atzerakada baten beldur da".

515.000 euro banatu ditu Ignacio Gonzalezek Laudio, 'El Cuponazo' zozketaren bidez

Testua
Txabi Alvarado Bañares

515.000 euro utzi zituen ONCE erakundearen 'El Cuponazo' zozketak ostiralean Laudio. Ignacio

Gonzalez loteria saltzaileak banatu zuen saria, Herriko plazan, 20 kupoietan banatuta.

Zehazki, 19 kupoik 25.000 euroko saria jaso dute, eta 40.000 eurokoa azkenak.

Artziniega

Artziniegako ibilbideak jasotzen dituen diptiko berria kalean

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Hiribilduko inguruak ezagutu eta gozatzeko diptikoa aurkeztu zuen martxoaren 4an Artziniegako Udalak. Argitalpenak hainbat zailtasunetako sei proposamen jasotzen ditu: hiru ibilbide eta hiru pasealdi.

Euskarriek Artziniegako Utxati, Ganzabala eta Peñalba

gailurrak bisitatzeko bideak barnebiltzen dituzte. Paseoek, berriz, San Antonio, Mendieta eta Berrones inguruak ezagutzera eramango dituzte bisitariak, 2-3 kilometroko bide errazak jarraituz. QR kodeekin lagundu dituzte txangoak.

Ganzorrotz Mendi taldearen 2022ko egutegia ere plazaratu zuten ostiraleko ekitaldian. Hain zuzen ere, martxoaren 5ean egin zuen mendi taldeak

bere lehenengo ekimena: Yarri Memoriala.

Yarri Memoriala mendi mar txak hasiera eman zion Artziniegako ekitaldi handien denboraldia-ri, bai eta eskualdeko mendi mar txen egutegiari ere. Antolatzaileek bi ibilbide prestatu zituzten: luzea eta txikia. Bidea edozein izanda ere, lokatz ugariarekin egin zuten topo mendizaleek, eta merezitako otordua jaso zuten helmugan, berotan sartzeko.

AIARALDEKO MUGIMENDU FEMINISTAREN ERAKUSKETA IBILTARIA ikusgai!

- Martxoaren 8an, arratsalde, Urduñako foru plazan
- Martxoaren 10ean, arratsalde, Okondoko frontoian
- Martxoaren 13an, arratsalde, Okondoko frontoian
- Martxoaren 20an, eguerdian, Artziniegako frontoian
- Martxoaren 20an, arratsalde, Okondoko frontoian
- Martxoaren 25etik apirilaren 5era Orozkoko Museon

info+: labur.eus/feminismoaaiaraldean

AIARALDEKO MUGIMENDU FEMINISTA

BORBOR FEMINISMO FAKTORIA



Amurrio

Tubos Reunidos enpresako langileek ontzat jo dute sindikatuen gehiengoak proposatutako azken aurreakordioa

Testua
Aitor Aspuru Saez

Otsaila amaieran LAB, UGT eta CCOO sindikatuek bigarren aurreakordio bat sinatu zuten Tubos Reunidos enpresako zuzendaritzarekin, 2017an hitzarmen kolektiboaren iraungitzearen ondorioz pilatutako atzerapenak jasotzeko.

Martxoko lehengo astean proposamena langileei aurkeztu diete sindikatuek, martxoaren lean hain zuzen. Horren ostean, bozkatzeari ekin diote beharginak eta emaitzak hurrengoak izan dira: alde, 405; kontra, 210;

zuri, 3 eta baliogabeak, 3. Horrenbestez, sindikatuen gehiengoak adostutakoa sinatuko da aste honetan, onartua izan baita langileen aldetik.

Hiru sindikatu horiek beste aurreakordio bat adostu zuten zuzendaritzarekin otsailaren 10ean, baina Tubos Reunidos enpresako beharginen gehiengoak atzera bota zuen. Bi bozketetan bai ELAK zein ESK-k kontrako iritzia eman dute akordioari dagokionez.

Edonola ere, maiatzetik aurrera sindikatuek erronka berria izango dute mahai gainean: lan hitzarmena negoziatzeari ekin beharko diote, 2017an iraungi baitzen aurrekoa.

Aurrekontu parte-hartzaileen bozketa fasea abiatu du Amurrioko Udalak

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Martxoaren 3an abiatu zuen Amurrioko Udalak aurrekontu parte-hartzaileen kanpainaren azken zatia. Horrenbestez, inbertsio proposamen finalistak bozkatzeko aukera dute herritarrek, martxoaren 18ra luzatuko den bozketa fasean.

Udalak urrian abiatu zuen AmurrioEKIN kanpaina, hirugarren urtez aurrekontu parte-hartzaileak definitzeko helburuarekin. Guztira, 430.000 eurokoa izango da tokiko erakundeak egingo duen inbertsioa.

Bi multzotan sailkatu dituzte inbertsio proposamenak: 48.000 euro baino gutxiagoko aurrekontua dutenak eta 48.000 euro baino gehiagokoak. Lehenengoak 2022an exekutatu nahi ditu Udalak, horretarako 215.000

euro bideratuta. Kostu handiagoko inbertsioak, aldiz, 2023an exekutatu dituzte, beste 215.000 euro bideratuz.

Otsailaren 28an aurkeztu zituzten bozketa fasearen nondik norakoak Txerra Molinuevo alkateak eta Ana Izquierdo parte-hartze teknikariak. 16 urtetik gorako Amurrioko erroldatutako bizilagun orok izango du parte hartzeko aukera.

Amurrioko Udalak urrian hasi zuen aurrekontu parte-hartzaileak osatzeko prozesua. Herritarren ekarpenak jasotzeko, antzeko proposamenak multzokatu eta lehenespene fasea gauzatu zuten abenduaren lean egindako bileran. Ana Izquierdo parte hartze teknikariak nabarmendu du aurtengo edizioan, priektuen lehia baino, ekarpen kualitatiboak jasotzea lehenespene fase horretan: guztira 32 dira bozketa fasera igarotako proposamenak.

Elkartasunak oholtzatik frontoira jauzi egin zueneko

Su Ta Gar taldearen kontzertua Burubion, pala eta eskupilota partidak, indabada... makina bat ekintza antolatu ditu ANkerkeriari STOP plataformak Galder Barbado eta Aitor Zelaia gazteen aurkako prozedura judizialak eragindako kostu ekonomikoari aurre egiteko.



MIKEL GOÑI BERRIZ FRONTOIAN

Berebiziko espektatiba sortu zuen larunbat arratsaldeko hitzorduak, eta 300 lagunetik gora elkartu ziren. Izan ere, Mikel Goñi pilotari profesional ohia zen Amurrioko frontoian norgehiagokan arituko zen kirolarietako bat, hainbat urtez frontoietatik aldentuta preso egon ostean.

erreportajea



Gaur egun abandonatuta daude Artziniegako Junioradoko azpiegiturak. [Aiaraldea.eus](http://aiaraldea.eus)

Artziniegako Marianisten Eskolako haurren aurkako sexu-abusu kasua, argitzeke

‘El Pais’ egunkariak bildutako datuen arabera, haurren aurkako sexu-abusu kasu bat egon zen Artziniegako Marianisten Eskolan, 1961. urtean. Marianistek ikerketa kanonikoa abiatu dutela adierazi dute, euren ordenean jazotako kasu guztiak argitzeko.



Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Gaurkotasunez betetako gaia bilakatu dira elizaren baitan haurren aurka eginiko sexu-abusuen kasuak. Ikerketa abiatu du Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak, EAEn dokumentatutako dozenaka kasu argitzeko helburuarekin. Salaketarako bideak jarri ditu Ertzaintzak, eta lekukotza berriak azaleratzen ari dira.

‘El Pais’ egunkariak azken urteetan eginiko ikerketa zabal bat izan zen prozesuaren abiapuntua. Egunkari horrek txosten bat helerazi zion iaz Espainiako Eliza Katolikoari eta Vatikanuari. Haurren aurkako 251 sexu-abusu kasu jaso zituzten dokumentu horretan, eta horietako 13 jazo ziren Euskal Autonomia Erkidegoan. Baina azken asteetan beste horrenbeste salaketa jazo ditu Segurtasun Sailak.

Dena den, ‘El Paisen’ ikerketa askoz zabalagoa da. Guztira, 611 kasu eta 1.246 erasotu identifikatu ditu komunikabideak, baina horietako guztiak ez daude guztiz argituta edo aski dokumentatuta.

Artziniegako kasua

Argitu gabeko ehunka kasu horien artean dago Artziniegako Marianisten Eskolako (‘Juniorado de Arceniega’ gisa ere ezagutzen zena). Iaz egin zuen publiko kasua El Paisek, Marianisten ordenaren inguruko ikerketa zabalago baten

barruan. Bildutako datuen arabera, 1961. urtean jazo zen kasua, eta ‘Francisco Anaia’ akusatu zuten eraso egiteaz.

Ez da Artziniegako kasu zehatz horri buruzko xehetasun gehiago ezagutzen, baina Bizkaian beste eraso bat salatu zuen pertsona batek Francisco anaiari buruzko xehetasun gehiago eman zizkion ‘El Pais’-i: “Ukituak egiten zituen praken azpitik. Mutil gaztea zen, ilehoria, nahiko sadikoa ikasleak atontzeko orduan. Bere mahaira deitzen zizun irakurtzeko, eta han eskua sartzen hasten zen. Garai hartan bospasei urte nituen”.

Horrez gain, ikasleen aurkako sexu-abusuak egiteaz akusatutako beste marista bat ere igaro zen Artziniegako eskolatik: Esteban Villalba. Baina, bere aurkako salaketak Bizkaian egon zen garaikoak dira. Bilbo inguruko hiru ikasle-ohiren lekukotzak bildu ditu egunkariak, baina beste bederatzik gutxienez ere egin dituzte adierazpenak, sare sozialen bidez.

22 marista salatuta

Harago doa ikerketa: Espainiako Estatuko maristen 20 eskoletako kasuak bildu ditu komunikabideak. Erasoa 1950ko hamarkadatik 1990ko hamarkadara bitartean jazo ziren, eta 22 marista eta sekular (pertsona laiko) bat identifikatu dituzte guztira erasotzaile gisa.

Maristek adierazi dute ikerketa kanonikoa abiatu dutela gertatutakoa ikertzeko, eta posta

elektronikoak jarri dituzte nahi duen ororen eskura: protecciondelmenor@maristasiberica.es.

Maristek adierazi dute ikerketa abiatu dutela euren ordenaren barruan jazotako kasuak ikertzeko

Eraikinaren historia

Historia luzea du Artziniegao Marianisten Eskolaren eraikinak. 1747. urtetik aurrera Aiarako kontzejuetako billkuretarako baliatu zen, 1845. urtean enkantean saldu zen arte. Artziniegako Udalak eskuratu zuen, Lantenoko bizilagun baten maileguari esker. Ondoren, 1857. urtean, Eugenio de Garay y Rivacobak erosi zuen, 13.500 errealean truke. Ordutik aurrera hasi zen eraikina eskola moduan erabiltzen, 1990ra arte. Ondoren, elkarbizitza zentro bilakatu zen, 2014ra arte. Urte horretan itxi zituen ateak, eta hutsik dago geroztik.



Ezkerreko argazkian, eskola 1930. urtean eginiko argazki batean. Eskuman, eskolako frontoian 1934. urtean eginiko prozesio bat. **Marianisten artxiboa**

bertako
igogailuak | ascensores

22. korrika
HITZKIN
Amurriotik Donostia
2022ko martxoaren 3tik apirilaren 10era

**EUSKARA,
GURE HELBURU KOMUNA**

ARABA
945 712 822

BIZKAIA
946 523 935

GIPUZKOA
943 903 450

NAFARROA
848 870 917

DEITU EDO BISITATU
www.bertako.eus





Amurriko eta Laudio lotuko dituzte *berdintasunaren alde*

Martxoaren 13an egingo dute Berdintasunaren Aldeko Martxa Neurturearen edizio berria, Altxarrate Kirol Elkarrean eta Kaskagorri Futbol Taldeak elkarlanean antolatutakoa. Amurrioko Juan de Urrutia plazatik zein Laudioko Herriko Plazatik abiatuko da martxa, 10:00etan. Biibilbideek Nerbioikoibaieran ertzaraituko dute eta Luiaondo izango dute geraleku. Aurtengo edizioan, osasun egoerak baldintzatuta, jende pila ketak saihestuko dituzte Luiaondan atonduko duten postuan. Martxak 12 kilometroko luzera izango du, eta ibilbidea laua eta erreza dela nabarmendu dute antolatzaileek.

Altxarrate eta Kaskagorriko kideak arduratuko dira parte hartzaileen denborak kon-

trolatzeaz irteera eta helmuga postuetan. "Ez du lehenengoak irabaziko, ezta azkenak ere. Erabilitako denbora neuruko da eta tarteko denborek jasoko dituzte opariak" azaldu dute antolakuntzako kideek. Sarien banaketa hori Arrespalditzako Emakumeen Gelan egingo dute, denbora guztiak egiaztatuta eta tarteko denborak kalkulatuta ostenan.

Izen ematea zabalik martxoaren 10era arte

Martxoaren 10ean itxiko dute izen ematepea. Inskripzio orria Aiarako Udalean eta Altxarrate eta Kaskagorri taldeen bulegoetan egongo da eskuragarri. Laudion Altxarrateko kideak eta herri-laguntzaileak udaletxe sarreran egongo dira astearte eta ostegune-

tan, 11:00etatik 13:00etara. Amurrioren, aldiz, Kaskagorri elkarrean Kultura Etxean egongo da izen emateak jasotzen, asteleheneetik ostegunera 17:00etatik 19:00etara, eta ostiraletan 11:00etatik 13:00etara.

Izen emateak 5 euroko kostua izango du, eta 2020an ordaindu zuten parte hartzaileek ez dute berriro egin behar. Era berean, bertan behera geratuzten edizio hartako kamiseta zutenek ez dute kamiseta berririk eskatu behar.

Lehenengo edizioan 400 lagun elkartu zituen martxak, eta 2019an ia mila izan ziren bertaratutakoak. Aurten ere, parte-hartzaile kopuruak gora egitea espero dute antolatzaileek.

MUSIKA

03.11 Ostirala
22:30 AMURRIO
KAOTIKO ETA PROPOUSSE
Burubio Kultur Elkarrean

03.12 Larumbata
21:00 LAUDIO
MAITE LARBURU
Faktoria

03.18 Ostirala
22:00 AMURRIO
BULEGO ETA DAÑE
Burubio Kultur Elkarrean

ZINEMA

03.10 Osteguna
17:00 URDUÑA
ZINEMA: "EL OLIVO"
Alondegia

03.12 Larumbata
18:30 LAUDIO
ZINEGOAK
LGBTBI+ komunitateari buruzko film laburrak.
Laudioalde aretoa

03.13 Igandea
16:30 OROZKO
'ANBIO: LA GUERRERA DEL AMAZONAS'
Donibane aretoa

03.20 Igandea
16:30 OROZKO
'THE BATMAN'
Donibane aretoa

03.20 Igandea
19:30 AMURRIO
'COMPETENCIA OFICIAL'
Amurrio Antzokia

03.20 Igandea
19:30 OROZKO
'LA PEOR PERSONA DEL MUNDO'
Donibane aretoa

FAMILIA JARDUERAK

03.09 Asteazkena
17:30 ARTZINIIEGA
IPUIN TXIKIAK: 'PRINTZESEK ERE PUZKER EGITEN DUTE'
Liburutegia

03.10 Osteguna
17:00 AMURRIO
HAUR JOLASAK ETA IPUIN KONTAKETA
Martxoaren 8ko egitarauaren barruan
Kultur Etxea

03.14 Astelehena
17:00 URDUÑA
ZORIONTASUNA OSASUNA DA, OSASUNA MUGIMENDUA DA
Unai Velarderen eskutik
Erretiratuen egoitza

03.16 Asteazkena
18:30 URDUÑA
LIZTOR ASIARRA
Bizkaiko Erietzainen Elkarrean eskainitako hitzaldia
Alondegia

03.18 Ostirala
18:00 ARTZINIIEGA
AFRIKAKO EMAKUMEAK
Zineforuma emakumeen nazioarteko egunaren harira
Udaletxe zaharra

03.19 Larumbata
10:00 AIARA
BATUKADA FEMINISTA
Etxaurren Ikastola

03.19 Larumbata
18:45 AIARA
DESBERDINTASUNA MEDIKUNTZAN
Emakumeak Medikuntzan Foroak eskainitako hitzaldia
Lantenoko Eskolak

03.19 Larumbata
19:30 BARANBIO
AUZOKONPOSTAJEA EGITEN IKASTEKO SAIOA
Emakumeak Medikuntzan Foroak eskainitako hitzaldia
Gizarte etxea

03.20 Igandea
12:00 ARTZINIIEGA
ARTZINIIEGAKO EMAKUMEAK HISTORIA EGITEN
Liburu aurkezpena
Udaletxea

03.21 Astelehena
17:00 URDUÑA
DIANA IBARGUTXIREN HITZALDIA
Edertasun kanonen inguruan
Erretiratuen egoitza

03.22 Asteartea
18:00 AMURRIO
EMAKUME MUSULMANAK ETA JANKERA
Maya Amraeren eskutik
Kultur etxea

IKUSKIZUNAK

03.11 Ostirala
17:30 URDUÑA
IBON MAGOA
Korrika Kulturaren egitarauaren barruan
Alondegia

Zinegoak jaialdia Laudion



Zinegoak jaialdiko film-laburrak ikusteko aukera egongo da datorren martxoaren 12an Laudioako Laudioalde aretoan. Arratsaldeko 18:00etan hasiko dute emanaldia, eta Bilboko gaylesbotrans Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoen Jaialdiko azken edizioako pieza hautatuak proiektatuko dituzte bertan. 2004. urtean abiatu zuten jaialdia eta Nazioartean erreferente bilakatu da.

'Nomadak gaitun?' azokak 18 emakume sortzaile bilduko ditu Faktorian



Martxoaren 12an egingo du Dinagu kolektiboak bere hurrengo azoka ibiltaria, Laudion, hain zuzen. Faktorian elkartuko dituzte Euskal Herriko emakume sortzaileak. Dinagu Kolektiboak Araban egiten duen lehen geldialdia izango da eskualdekoa.

“Zirkuitu polita osatuko dugu Euskal Herriko bitxigintza, moda, ilustrazio, zeramika, kosmetika eta osagarri ezberdinen eskaintza alternatiboa zuek iku-

si, ukitu, probatu eta erosi ahal izateko” azaldu zuten ekimeneko antolatzaileek Faktorian egindako aurkezpenean 21:00etan, baina, Maite Larburu musikariak kontzertua eskainiko du. Musika emanaldirako sarrerek 12€ baliokidute, 10€ bazkideentzat. Ekonomatuak, bestalde, jantoki zerbitzua prestatuko du eguerdian eta iluntzean, produktu ekologikoen mokadu eskaintza, hain zuzen.

Kartelera



MENAGARA
ESKOLA
Thelma & Louise
MARTXOAK 12
LARUNBATA (Doan)
16:00



DONIBANE
ARETOA
The Gloria's
MARTXOAK 13
IGANDEA
(3,5/4,5 euro)
19:00



AMURRIO
ANTZOKIA
Hive
MARTXOAK 13
IGANDEA
(5 euro)
19:30



LAUDIOALDE
ARETOA
**Licorice
pizza**
MARTXOAK 19
LARUNBATA (3 euro)
18:30

03.12 Larumbata
11:00 OROZKO
ALTXORRAREN BILA
20215ean jaiotakoentzat
Gaztetxokoa

03.13 Igandea
17:30 AIARA
HENNA TAILERRA
10 urtetik gorakoentzako
tailerra
Luisaondoko ludoeteka

03.17 Osteguna
17:30 ARTZINIIEGA
IPUIN TXIKIAK: "LA
PRINCESA LISTILLA"
Liburutegia

HITZALDIAK ETA TAILERRAK

03.09 Asteazkena
12:00 URDUÑA
MEMORIA TAILERRA
Erretiratuen egoitzan

03.09 Asteazkena
17:00 URDUÑA
'NO PASES POR LA VIDA,
VIVELA'
Belen Andresen hitzaldia,
Loraldi taldeak antolatuta
Alondegia

03.10 Osteguna
19:00 AMURRIO
'NUESTROS CUERPOS,
NUESTRAS VIDAS'
Josune Munozek gidatutako
hitzaldia
Kultur Etxea

03.11 Ostirala
18:00 AIARA
TXERTAKETAK FRUTA
ARBOLETAN
Tailer praktikoa
Alondegia

03.12 Larumbata
10:30 OROZKO
BORDATU TAILERRA:
TXIRTXILU ETA BITXIAK
Artiñano Etxea

03.12 Larumbata
10:00 URDUÑA
FRUTAGINTZA ETA
BARATZE EKOLOGIKOA
Euskal Herriko Hazien
Sarearen hitzaldia
Udal baratzeak

03.13 Igandea
18:30 LAUDIO
'DESAPARAZCA AQUÍ'
Patricia Sornosaren eskutik
Kasinoa

03.12 Larumbata
19:00 OROZKO
IRANTZU VARELAREN
BAKARRIZKETA
Donibane aretoa

03.12 Larumbata
20:00 AMURRIO
ANTZERKIA: 'PREPARADAS,
LISTAS... YA!'
Martxoaren 8ko
egitarauaren barruan
Amurrio Antzokia

03.13 Igandea
17:30 OKONDO
ZIRIKA ZIRKUS
Eta Aiaraldeko Mugimendu
Feministari buruzko
erakusketa
Frontoian

KIROL JARDUERAK

03.12 Larumbata
08:00 LAUDIO
ESKOLA KIROLA:
GALDAMESERA TXANGOIA
Goikogane Mendi taldeak
antolatuta
Laudio Institutua

03.13 Igandea
09:21 URDUÑA
BABIORA IGOERA
Txarlazo Mendi Taldeak
antolatuta
Tren geltokia

03.13 Igandea
10:00 AIARALDEA
III. BERDINTASUNAREN
ALDEKO MARTXA NEURTUA
Altzarrate eta Kaskagorri
kirol elkarteek antolatuta
Nerbioiko parke lineala

BESTELAKO JARDUERAK

03.12 Larumbata
11:00 LAUDIO
DINAGU AZOKA IBILTARIA
Emakume sortzaileen azoka
Faktoria

03.19 Larumbata
19:00 AMURRIO
URREZKO GUK SARIAREN
BANAKETA
Amurrio Antzokia

INFO +
aiaraldea.eus

erreportajea

Ukranianako inbasioak ekialdera bideratu ditu begirada guztiak. Bertan piztu den gerrak herritar ororen jakinmina eta kezak bultzatu ditu. Izan ere, bertan gertatzen denak eragin zuzena izango du, lehenago edo beranduago eskualdeko bizitzen gain. Asko dira Ukraina,

Errusia edota Bielorrusiarekin harreman zuzena duten aiaraldearrak. Aiaraldea Komunikabidea Ukrainiar komunitateko kideekin eta Chernobyl inguruko haurrak artatzen dituzten familiekin jarri da harremanetan egoera nola bizi duten ezagutzeko.

Eskualde oso bat Ukrainiako gerrari begira



“Haurtzaroko lagun gehienak fronteant egongo dira, ziurrenik”

ARTEM DEVESNY BONDARENKO (Kherson, 1995)
DUELA 15 URTE ETORRI ZEN EUSKAL HERRIRA BIZITZERA ETA TUBACEXEN LAN EGITEN DU, NAHIZ ETA TRAPAGAN BIZI. UKRAINIAKO GERRAK BERE JATORRIZKO HIRIA ETA FAMILIA JO DITU BETE-BETEAN ETA HORRI BURUZ MINTZATU DA.



Testua
Aitor Aspuru Saez

Nongoa zara eta zein da zure hiriaren egoera?

Ni Khersonekoa naiz. Han daude nire amona, osaba bere bi semeekin eta bere emaztea, haurdun dagoena. Inbasioaren egunean bertan atera ziren hiritik ihesean. Basoan etxe txiki bat daukate, datxa bat. Khersonetik 46 kilometrora daude, gutxi gorabehera. Zonalde hori Errusiak okupatu du jadanik eta egoera, gutxi gorabehera, lasaia da. Ura eta argindarra kendu dizkiete. Igandean itzuli zen, baina gaur esan digute berriro argindarririk gabe daudela.

Nolabait, lasaiago daude. Bonbardaketak eta tiroketak entzuten dituzte, baina leku isolatu batean daude. Hemen baserri batean egongo balira bezala. Edonola ere, gure familia osoa Khersonekoa da, gure familiako etxea han dago eta ez dakigu nola dagoen. Senideak inkomunikaturik daude. Deiak egiteko aukera daukate soilik eta Internetan noizean behin dute.

Izan ere, telefonoa autoaren bateria bidez kargatzen dute eta ez daukate gasolina gehiago. Bukatzen denean, ez dugu izango komunikatzeko modurik. Zorionez, bizilagunak elektrizitate sorgailua dauka. Une hauetan goizero gaude euren mezuaren zain, jakiteko bizirik eta onik daudela.

Bestalde, Vinnitsan nire osaba dago, bere semeak bederatzi urte ditu eta emaztea haurdun dago. Horiek gehiago sufritu dute. Bonbardaketak hasi zirenean, etxean zeuden; kristalak lehertu ziren eta etxea dardarka hasi zen. Umea hasi zen korrika etxetik, ez baitzekien zer gertatzen zen. Mahai azpian babestu ziren. Bonbardaketak goizeko 4:00etan hasi ziren eta eurek 9:00ak aldera ihes egin zuten.

Nire izebak hilabete eta erdiren buruan erditu behar du, eta herri txiki batean babestu dira. Han ez dago ezer, ez ospitalerik, ez ezer. Erdi lasai daude, aire bonbardaketen alarmek jotzen dutenean gotorleku batean sartzen dira. Nire birraitonarena zen etxea eta berak II. Mundu Gerran eraiki zuen. Zulo txiki bat da, baina gutxienez babestuago daude. Gutxi hitz egiten dugu eurekin, edozein unean hanka egin beharko dute.

Vinnitsa oso zonalde abertzalea da eta Errusia gogor kolpatzen ari da. Albisteetan ez da ezer agertzen, ezta Ukrainian ere.

Ama eta biok oso larrituta gaude nire izekoren egoeratik. Mina dauka eta shockean dago. Ez dakite zer gertatuko den; ospitalean erdituko duen, etxean, leku ezezagun batean korrika joango direlako... Egoera oso txarra da. Gainera, nire izeko-amama gaixorik dago eta ezin dute ihes egin hain erraz. Ez digute asko kontatzen eta guk ez ditugu sakatu nahi. Umea shockean dago. Babesleku bat egin nahi du eta aitari eskatzen

dio arma bat errusiarrak hiltzeko. Hori entzutean arima hunkitzen zaigu. Gutxienez, dauden lekua ez dute bonbardatu.

Khersonen borroka egon dira. Zerbait dakizue horri buruz?

Ez dakigu ezer. Senideei galdetzen diegu, baina eurek ere ez dakite ezer. Jakin badakigu sarrerako zubian borrokatu zirela indar ukrainiar eta errusiarrak, baina ez dago argi zer gertatu den. Antza, errusiarrak hartu zuten hiria eta gero indar ukrainiarrek berreskuratu zuten eta horrela mantendu da. Hala ere, Kherson bonbardatzen ari dira eta ez du luze iraungo.

Dnieper ibaiaren beste alde osoa errusiarren esku dago eta handik bonbardatzen dute. Gatazkaren bideoren bat bidali digute. Zubiaren beste aldean, hain zuzen, nire aitaren ama bizi da, eta orain harremana ez badugu ere, handik asko ibiltzen nintzen umea nintzenean. Auzo horretatik dago grabatuta bideoa eta ikustea nola dagoen orain... Nik ez dut sinesten, ezta nire familiako inork ere. Ezin dugu sinetsi.

Luze hitz egin da erasoari buruz eta askok uste zuten ez zela gertatuko. Nola jaso zenuten ostegunean albistea?

Shockean. Lanera deitu ninduen amak esateko. Berez, guk bagenekien Putin noizbait Donbassen sartuko zela. Hori denok

genuen argi, baina haraino, ez gehiago, Krimean bezala. Baina psikopata honek -ez daukat beste hitz bat deskribatzeko- erabakitzea herrialde osoa inbaditzea, hori ez genuen inork espero.

Amak deitu ninduen negarrez hasi nintzen. Galdetu nion gure senideei buruz eta jakin izan nuenean nire osabarena, ni bezala Artem da bere izena, bihotza txiki egin zitzaidan.

Jadanik latza da bizitza Ukrainan, eta nire osabak berriki erosi zuen etxebizitza, eta orain litekeena da etxea birrinduta egotea, bere emazte hardunarekin eta bere semearekin ihes egiten duen bitartean. Ume belaunaldi hori gorrotoan haziko da eta horrez gain, auskalo gerrak zer nolako orbainak utziko dizkien.

Horren aurrean sentitzen duzun etsipenak, ezin baituzu ezer egin, akabatzen zaitu. Egun osoa gaude euren mezuaren zain, jakiteko ondo daudela. Horrela egunero, inbasioa hasi zenetik.

Amona hona ekartzen saiatzen ari gara, baina ezinezkoa da, inguratu duen lurralde guztia hartu dute errusiarrek. Irtenbide bakarra izango litzateke Errumaniako mugara joatea, baina Khersonera joan beharko litzateke eta han borroka dago.

Egin dugu saiakera ere nire osaba hona etortzeko, baina ez du nahi. Oso abertzalea da. Alde batetik, ulertzen dut, ez baitu bere herria utzi nahi. Ni aspaldi bizi naiz hemen, baina euren bizitza eta etxea han daude. Berak esaten digu ea zergatik utzi behar duen bere herrialdea. Behin eta berriro proposatu diogu etortzeko hona, edo behintzat bere emazte haurduna etortzeko, baina bere erantzuna da gure herrialdea maite duela eta ez dela joango.

Inbasioaren sorburua da, nolabait, Donbasseko gatazka. Zuek nola bizi izan duzue hori 2014tik?

Gure familian ez du aparteko eraginik izan, eremu hori urrun baitago, baina Maidana eta Donbasseko gatazka piztu zirenetik, gerra etengabea izan da zonalde horretan. Ez da hedabidetan agertzen, baina Ukrainako eremu horretan egunero esnatzen dira tiroketak entzuten. Zorionez, nire senideek ez dute bizi izan behar.

Hala eta guztiz ere, argi zegoen hau horrela amaituko zela, baina ez Ukraina osoan. Alde batetik, ezustea izan da, baina bestetik, Vladimir Putin ezagututa, ez litzateke horrela izan behar. Bera boterean dago aspaldi eta ezin zaio utzi hain herrialde handia eta indar armatu hain boteretsua burutik sano ez dagoen pertsona bati. Oraindik ezin dut sinetsi hau.

Maidana eta Krimeako independentzia nola bizi izan zenuten?

Nire familia oso arduratuta zegoen. Hasteko, gu ukrainarrak gara eta ez errusiarrek, baina oso nahastuta gaude. Guztiok. Inork ezin du esan “ni ukrainarra naiz soilik”. Esaterako, nik errusiarra eta ukrainarra hitz egiten dut. Are gehiago, ukrainarra ahazten ari zait eta ez hainbeste errusiarra. Familia osoak hitz egiten du.

Banaketa horrekin gorrotoaren hazia jarri dute herritarren artean. Nire familian, adibidez, nire osaba Artem oso abertzalea da, baina familiaren beste aldea ez horrenbeste.

Batzuek errua botatzen diote Errusiarri eta beste batzuek gogoratzen dute Sobietar Batasunean guztiok ginela anaiak. Talkak gertatzen dira eta infernua bizi da zenbait lekutan.

Esaterako, Donbassen errusiarzale amorratuak Donetskoko populazioaren erdia dira, beste erdiak nahikoa dauka bizitzarekin eta ez du nahi gatazkarik. Ordea, gatazka sortu du herrialdean inbasioa egin duen pertsonak.

Politikak gelditu ditzake armak negoziazioen bidez?

Alde batetik, gauzak dauden moduan, elkarrizketek

ez dute emaitzarik emango. Errusiak exijitzen dituen baldintzak ez ditu onartuko Ukrainak. Edonola ere, presidenteak onartuko balitu, jendeak ez luke egingo. Ukrainarrak ez dira errusiarrek eta ez dute onartuko Errusiako pasaporteak. Ondorioz, hori gertatzen bada, gerra zibila gerta liteke. Ez dut uste gertatuko denik, nire ustez presidenteak ez baitu onartuko.

Armen bideak badakigu non bukatuko duen. Ukrainak ez du armadarik, are gutxiago Errusia bezalako indar baten kontra. Bakarrik gaude, inork ez gaitu lagunduko, ez NATOk ez Estatu Batuek. Bestalde, modu hotzean pentsatuta, zer gertatuko litzateke NATO sartuko balitz? Gerra zabalduko litzateke nonahi.

Nik ez dut konponbiderik ikusten. Espero dut gertatu behar dena ahalik eta lasterren izatea.

Modu berekoian hitz eginda, nik nahi dut axola zaidan jendea Ukrainatik ateratzea. Herrialdeak ez dauka aukerarik. Vladimir Putinen aurrean ez dago irtenbiderik eta ez da geldituko Ukraina Errusiaren parte izan arte. Hori horrela da.

Zure haurtzaroko lagunei buruz zerbait dakizu?

Gehienak frontean egongo dira. Nire osabak aipatu digu beharrezkoa izanez gero, bera ere joango dela. Oraindik ez bada joan izan da bere emazteak eta amak ez diotelako utzi. Oro har, oso gutxi dakigu eta gure senideek lau hitzekin erantzuten digute, bateriarik gabe ez geratzeko.

Nolakoa da ukrainarra izatea diasporan orain?

Orain beldur naiz, familiagatik eta etorkizunagatik. Amorrua eta gorrotoa ere sentitzen dut, baina ez Errusiaren kontra.

Ez da errusiarren errua, pertsona bakarrak aukeratu du hau egitea eta errusiar asko ez daude ados, baina diktadura batean bizi dira. Vladimir Putin da arduradun bakarra.

Askotan pentsatu dut, emaztea eta ume bat bidean izango ez banu, hara joango nintzatekela. Baina ez herrialdeagatik edo abertzalea sentitzen naizelako, baizik eta nire familia hor dagoelako, eta nahi dudalako ateratzea eta ondo daudela jakitea. Baina orain familia bat daukat hemen eta horrek baretzen nau.

Sentipen gogorrena da beldurra. Esmatzea eta Whatsapp mezurik edo deirik ez jasotzea. Ostegunean amonari buruzko azken albistea 16:00etan izan zen eta hurrengo egunera arte ez genuen gehiago jakin. Sentsazio hori ezin dut ezta deskribatu.

Zerbait nabarmendu nahi duzu?

Jendeak aintzat hartu behar du komunikabideetan bakarrik agertzen dela gertatzen ari denaren zati txiki bat. Hori sarraskia izatean ari da eta hasi baino ez da egin. Halaber, Errusia ez da bere indar osoarekin sartu. Badaki jende gehiegi hiltzen badu inork ez duela babestuko, baina egingo du.

Ukrainak azken urteotan saiakera egin du Europar Batasunean edo NATO sartzeko eta ezezkoa jaso du Vladimir Putinek beldurra eragin duelako. Putinek aurka egin du beti eta horrek sortu ditu Maidana eta Donbasseko gerra.

Nik badakit hemendik inork ezin duela ezer egin, laguntza humanitarioa eta armak oso ondo daude, baina horrek ez du ekidingo jendearen heriotza. Hortaz, nik bakarrik espero dut hau ahalik eta lasterren bukatzea. Berdin dit nola, baina bukatu dadila. Gauzak horrela, jende arruntak ordaintzen du, gerra guztietan bezala. Inork ez daki bihar zer gertatuko den, zer gertatuko den bere emazte haurdunarekin, etxea duzun edo ez... Hori guztia amaitu behar da. Jendeak ez du merezi eta Ukrainan bizitza jadanik latzegia da, ez dugu merezi hilarri bat buruaren gainean.



BELEN CARBALHO
BIKARTE ELKARTEA

Bielorrusiako haurren egoera

Bikarte Elkarteko haurren egoerak, pandemia hasi zenetik, okerrera egin du. Urte eta erdi da lurreko mugak itxita daudela, eta harrera-programak geldirik egon dira bai Europar Batasunean baita jatorrizko herrialdeetan (Bielorrusia eta Errusia) ere.

Harrera egiten diegun haur gehienak Bielorrusia hegoaldeko herrixketatik datoz, Gomel probintziatik, Ukrainarekin muga egiten duena iparraldetik, Chernobylgo Zentraletik eta, beraz, baztertze-eremutik gertu. Oso herrixka pobreak dira, ez dute bizirauteko baliabiderik, etxe askotan ere ez dago ur-korronterik, eta ur-putzu komunitarioetara jo behar dute, norberaren kontsumoa asetzeko. Etxebizitza eraikinak ere muturreko pobrezia-egoeran daude, non, gainera, alkoholismoa faktore komuna den bazterketa-arriskuan dauden familietan. Herrixka hauetan ez dago etorkizunik, ezta aukerarik ere ez, eta ezin da ilusioekin bizi. Haurrek ez dute haurtzarorik bizi, txiki-txikitatik hasten baitira helduen erantzukizunak izaten: anai-arrebak zaintzen, inoiz ikusi behar ez litzuketen helduen eszenak ikusten, eta hori guztia muturreko pobrezia-egoeran. Gainera, eremu horiek guztiek erradiazioak oso kutsatuta jarraitzen dute, eta horrek esan nahi du haurren minbizia oso erraz garatzen dela, kutsatutako lurzoru batetik elikatzen jarraitzen baitute; izan ere, lurzoru hori gutxi bada ere, kutsatutako baratze bateko produktuetatik elikatzen da.

Bestalde, estatuko umezurztegietan edo familia-umezurztegietan bizi diren haurrak ere hartzen dira, eta horietan elikadura- eta higiene-arloko oinarrizko baliabideak jasotzen dituzte, baina umezurztegi batean bizitzaren ondorioz, adingabe horiek gabezia afektibo asko dituzte, estimulazio falta, hain beharrezkoak direnak haur baten garapen fisiko eta psikikorako.

Pandemia aurreratuta, itxaropena genuen, eta 2022ko uda honetan haurrak Euskadira itzul zitezten lortu nahi genuen; izan ere, argi berdea eman zitzaion gure harrera-programari, baina gerraren hasieraren ondorioz zalantzazko egoera batean gaude, eta erakunde ofizialekin harremanetan jarraitzen badugu ere, eta horiek baieztatu diguten arren ez gaituztela ahanzturan, dena, logikoa denez, Ukrainako egoeran zentratu da, eta, haurrek ez dute erraz bidaiatzerik izango.

Bestalde, adingabe horietako batzuk egunotan beren herrixketan bizitzen ari direna alde batera utzita, Ukraina iparraldearekin muga egiten dutelako eta militarren pasabidea direlako, dagoeneko hasi dira urritasuna nabaritzen. Zehazki, hemengo supermerkatuetan egiten dira erosketak, eta atzo bertan elikagaiak falta ziren eta prezioak izugarri garestitu ziren. Era berean, kreditu-txartel batzuek ez dute funtzionatzen erosketak egiteko, eta, beraz, oinarrizko elikagaien erosketetan hemendik laguntzen jarraitzeko modua mugatua zaigu. Gainera, hornidurarik ez badago, horrek familia gaixo horien eta haur horien egoera okertuko du, gure laguntza ezin izango baita orain arte bezala helarazi.



Argia.eus

elkarrizketa



“No
zien
egite
U

ZURIÑE DE MIGUEL MALAXETXEBARRIA (Laudio, 1980) STANFORDEKO UNIBERTSITATEAREKIN IKERKETA EGIN DU ARIKETA FISIKOAREN ERAGINAK AZTERTZEKO BURMUINEAN. NATURE ALDIZKARIAN ARGITARATU DU ARTIKULUA ETA IBILBIDE OPAROA BETE DU NEUROZIENTZIAREN ESPARRUAN.



Testua
Aitor Aspuru Saez

Esperimentu argigarria egin duzu ariketa fisikoak burmuinean duen eraginari buruz, azalduko diguzu zer den aurkitutakoa?

Lehenik eta behin, eskerrak aitortzeagatik argigarria dela! Lanaren bitartez konturatu ginen ariketa fisikoak burmuinean duen eragina erreplikatu daitekela animalietan. Zehazki, ariketa fisikoa egin duten animalien odola transferituta ariketa egin ez dutenei.

Ariketa fisikoa egiten dugunean, neuronen kopurua areagotzen da hipokanpoan.

Burmuinaren zati hori ezaguna da parte hartzen duelako ikasteko prozesuan eta memorian. Hortaz, ariketa fisikoak neurona kopurua biderkatzen badu, susmoa da ona dela

burmuinarentzat. Beste ikerketa batzuek adierazten dute esparru kognitiboaren funtzioa ere hobetzen dela ariketa fisikoarekin.

Ez dakiguna zehazki da nola funtzionatzen duen horrek guztiak, baina gure estudioari esker ondorioztatu dugu odolean badaudela aldagai batzuk, zeinak burmuinera heltzen diren eta eragin hori duten.

Saguetan egin genituen ikerketak eta topatu genuen ariketa fisikoa egiten ez zutenek -gurpilik ez zutelako kaiolan- behin ariketa fisikoa egin zuten beste saguen plasma jasota, neurona gehiago zituztela hipokanpoan eta memoria eta ikasteko testak hobeto egiten zituztela.

Egindako beste aurkikuntza interesgarria izan zen plasma injekzioek burmuinaren inflamazioa murrizten dutela.

Hori gai interesgarria da buru gaixotasun ugariarekin lotu baita inflamazioa. Adibidez, alzheimerra, depresioa...

Zer nolako erabilpen praktikoa izan dezake aurkikuntzak?

Buru edo burmuin gaixotasunetan baliatu daiteke tratamendu gisa. Izan ere, horrelako kasuetan arazo handienetakoa da nola heldu burmuinera, “hesi” asko jartzen baititu.

Horrek zailtzen du tratamendua bideratzea burmuinera, gorputz osoan eragina edo kaltea sortu gabe. Eta alderantziz, zailtasunak daude edaten edo injektatzen diren tratamenduek eragina izateko burmuinean. Horregatik da hain zaila alzheimerra edo antzeko gaixotasunetara bideratutako tratamenduak sortzea.

Gure lanak erakusten du badaudela modu naturalak burmuina hobetzeko. Gorputz osoaren ekintzak hobetu dezake bere funtzionamendua.

Nire ustez, etorkizuna da ikastea nola gorputzak laguntzen duen burmuina. Hau da, nola heltzen diren proteinak

elkarrizketa

Nobel Saria duten zientzialariek lan egiteko aukera izan dute Stanforderko Unibertsitatean



burmuinera eta nola aldatzen duten informazioa, neurona kopurua, emozioak, kognizioa... Beste ildo bat izan daiteke topatu dugula odolaren aldagai batek -clusterin-ak-laguntzen dituela animaliak bere emaitzak hobetzen oroimenean eta ikasteko prozesuan.

Ziurrenik, clusterinaren bidez ezingo dugu tratamendua sortu, guk gorputzean dugun kopurua handia baita.

Halaber, konturatu gara clusterinak zelula endotelialean duela eragina.

Zelula horiek dira burmuineko zainen arduradunak, hau da, burmuinak dituen hesi batzuen. Ez dakigu zehazki zein den euren arteko harremana, baina badakigu zerikusia dutela burmuinaren egoerarekin.

Helburuetako bat izan daiteke zelula horien hartzaileak sustatu edo blokeatu dituen botika garatzea, burmuineko inflamazioa hobetzeko.

Stanforderko Unibertsitatearekin egin duzu ikerketa. Zer nolako harremana duzu mundu osoan ezaguna den zentro horrekin?

Stanfordera iritsi nintzen 'Marie Curie' bekarekin. Europar Batasunak ematen die doktoretza bukatu dutenei. Lehia handia dago beka hori eskuratzeko eta berez ni izan nintzen EHU n lortu zuen lehenengo pertsona.

Eman zidaten, hona etorri nintzen eta ekin nion lan egiteari Robert Sapolsky irakaslearekin. Doktoregoa egin nuen berarekin. Marie Curie beka amaitu nuen eta itzuli nintzen beste doktoretza ondoko ikastaroa egiteko beste irakasle batekin.

Orain irakasle naiz ni ere beste unibertsitate batean, baina harremanak dauzkat Stanforderekin, munduko erreferentzia baita eta zenbait ikerketa egiteko aukera izugarriak ematen ditu.

Antzeko ikerketa gehiagotan parte hartu duzu?

Bai, nire ibilbidea oinarrituta dago horretan: nola aldatu burmuina jokaeraren ikuspuntutik edo biologiatik. Ikertu dut ere estres sozialaren eragina depresioa sortzeko orduan, adibidez, eta orain beste bi lan dauzkat esku artean.

Alde batetik, bat badago lotuta Nature aldizkarian argitaratu den ikerketara. Aurreko galderetan horri buruz mintzatu naiz. Zehazki, hipoxiaren eragina aztertzen ari naiz burmuinean. Oro har, uste da hipoxia txarra dela eta kalteak sortzen dituela, baina ez bada oso handia eta aldizkakoa bada, badirudi onuragarria izan daitekeela.

Alegia, orain sortzen ari zaie hipoxia alzheimerra edo parkinsona pairatzen duten gaixoei. Ni ikertzen ari naiz zeintzuk diren aldizkako hipoxiaren eraginak, zeintzuk diren kalteak eta noiz gertatzen diren. Argitu nahi dugu dosi kontua den -iraupena eta intentsitatea- edo bestelako aldagaiekin harremana duen.

Bestalde, parte hartzen dut Estatu Batuetako Gobernuaren kanpaina batean autoen trafikoa murrizteko. Saiatzen ari dira umeak eskolara joaten oinez edo bizikletaz, eta ni ikertzen ari naiz ariketa fisiko horrek onurak dituen arlo kognitibo eta emozionalean. Horretarako neurtzen ari gara eskolara oinez joaten diren umeek emozio maila orekatuagoak dituzten. Halaber, alderatzen ari gara sistema sinpatiko eta parasinpatikoaren funtzionamendua oinez joaten diren eta autoz joaten direnen artean.

Zein izan da zure ibilbidea Stanfordera heldu arte?

Doktoretza egiteko bi beka lortu nituen. Bat Donostiako Psikologia Departamentukoa, EHUkoa, eta bestea Espainiako Hezkuntza Ministeriokoa. Hautatu nuen ministerioarena. Lau urtekoa zen eta azken urtea egiteko eskatu nuen aldaketa, Coloradoko Unibertsitateara joateko. Han ikasi nituen teknika berriak ikertzeko, eta oso ondo moldatzen ziren EHU n jasotako trebakuntzarekin.

Graduatu ostean eskatu nituen Ikerbasque eta Marie Curie beka eta biak eskuratu nituen. Bigarrenarekin geratu nintzen babes apur bat gehiago zuelako eta horri esker Stanfordera joan nintzen eta doktoretza osteko ikasketak Sapolsky doktorearekin amaitu nituen.

Stanforden beste postu bat eskaini zidaten eta bigarren doktoratu osteko ikastaroa egin nuen.

Orain Kaliforniako Estatuko Unibertsitatean daukat postua eta nire laborategia garatzen ari naiz neurozientzietan. Zehazki, ikertzen dut nolako harremana duen gorputzak burmuinarekin, bere portaera, kognizioa eta emozioak aldatzeko.

Urte mordoia bete dituzu Estatu Batuetan, zer egin zaizu gogorra eta zein izan da ezuste atsegina?

14 urte egin ditut jadanik Estatu Batuetan, bai. Lehenengo bi urteak egonaldiak izan ziren. Joaten eta etortzen nintzen eta ez nuen harremana galdu. Duela 12 urtetik, ordea, hemen daukat lana. Gogorrena da, dudarik gabe, jendea eta familia atzean uztea. Galtzen den denbora ez duzu berreskuratzen eta hori da gauzarik gogorrena.

Erakargarriena hemen da jende berria ezagutzea eta erronka berriak topatzea. Esaterako, lan munduan hemen egin ditut gauza asko amets hutsak zirenak. Stanford, esan dugun moduan, munduko erreferentzia da eta laborategian gauzatu ditzakezu beste leku batzuetan ezinezkoak diren proiektuak.

Hori aprobetxatzea oso polita izan da. Adibidez, aukera izan dut Nobel Saria duten zientzialariek lan egiteko. Eurekin partekatu ditut nire datuak eta elkarrekin hausnartu dugu konponbideak bilatzeko. Horrek ezustean harrapatu nau. Orain horrelako lorpenak izan ditudala eta hiru seme-alaba izanda, etxera itzultzeko gogoak ditut, baina ikusiko dugu non bukatzen dudana.

Bekak eskatu ditut itzultzeko, badaude bideak ikertzaileentzat herrira itzultzeko, baina ez da erraza, esperientzia izanda ere.

kultura

“Ezin diogu ihes egin barruan daramagun pasioari”



JOSE MARIA PINTO (Artziniega, 1959), MIKEL SEMEAREKIN, BATERA REINA SOFIA SARIKETAN HAUTATUA IZAN DA BERRIKI. PINTURAREKIKO PASIOA KONPARTITZEN DUTE AITA-SEMEEK.



Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Reina Sofia saria jasotzeko hautagaien artean egon zarete semea eta zu. Zer garrantzi dauka sair honek?

Espainiako Margolari eta Eskultore elkarteak antolatutako saria da hau. 110 urte baino gehiago ditu elkarteak, eta artista ezagun asko pasa dira bertatik, esaterako, Soroya izan zen lehendakari urte batzuetan.

Aurtengoa Reina Sofia sariaren 57. edizioa izan da. Elkarteak sortu zenetik Espainiako Erregea izan du ohorezko lehendakari. Errege-etearekin duen binkulazioa dela eta, izen hori jarri zioten hain sona handiko sariari.

Sofia erregina emerituak zuzendu ohi ditu sari banaketa ekitaldiak, aurtengoan egon ez den arren. Ni ez naiz monarkikoa, eta lehiaketara aurkeztu nintzen lehenengo aldian errezeloa nuen. Baina egia da interes handia erakutsi duela aurkeztutako lan guztiekiko. Banan banan geratzen da parte hartzaile guztiekin obren inguruan solasten. Bestelako lehiaketetara agertzen diren ordezkari publikoek baino askoz interes gehiago duela demostratu dit niri. Zentzu horretan, asko harritu nau erreginak.

Lehiaketara itzuliz, bi kategoria ditu: margoa eta eskultura. Artista bakoitzak obra bat bidali behar du, nahi duen neurrikoa. Hautatutako obra guztiekin erkusketa bat antolatzen dute Madrilgo Casa de las Vacas aretoan, eta epaimahiak finalistak aukeratzen ditu. Bederatzi artistek eta arte kritikariek osatutako epaimahaia da. Epaimahi potentea da, pertsona oso adituak biltzen dituena: Tomas Paredes, esaterako, Espainiako Arte Kritikarien Elkartearen presidentea.

Aurtengoa ez da, beraz, aurkezten zareten lehenengo urtea.

Ni lau aldiz izan naiz Reina Sofia sarirako hautatua, eta semea bitan. Beste bi urtetan aurkeztu nintzen arren, ez zizkidaten obrak onartu; behin bidean hautsi egin zelako, beste behin koadriari azken unean bota nion bernizak egindako lan guztia izorratu zidalako.

Sariketako finalistak izatera ere iritsi gara inoiz. Jakin izan dugu gerora, bion kasuan boto bakar bateko aldeagaitik ez genuela saria eskuratu. Nire kasuan, antza, epaimahiako bozketa berdinketan korapilatuta zegoen, zortzigarren bueltan epaimahaikide batek botoa aldatu zuen arte, zoritxarrez ez zen nire alde etorri. Mikel finalista izan zenean ere antzeko zozoz gertatu

zela entzun dugu. Aurten finalista bakarra aukeratu dute modalitate bakoitzean. Pixka bat arraroa suertatu zaigu erabakia, batez ere ikusirik semearen eta nire lanak erakusketako deigarrienetarikoak zirela. Baina tira, horrela suertatzen dira horrelako lehiaketak.

Obra bat bidean hautsi zitzazula aipatu duzu. Lan handia izango da artelan bat horrelako lehiaketa batean aurkeztea, nolakoa da prozesua?

Reina Sofia sariketa presentziala da, obra eraman beharra dago. Gaur egun ez da oso ohikoa hori; egindako lanaren argazki bat bidalita nahikoa izaten da, zure lana hautatua baldin bada bidaltzen duzu solik. Kasu honetan ez, aurkeztu nahi baduzu obra osorik bidali beharra dago.

Horrek lan handia suposatzen du, batez ere nireak bezalako hain dimentsio handiko artelanekin. Nik balkoitik zintzilikatu behar ditut garraiolariak har dezaten, estudioko atetik ez baitira koadroak kabitzen. Gainera oso obra pisutsuak dira.

Semea Madril bizi denez, errezagoa du tamaina handiko obrak lehiaketara aurkeztea. Bertan badira arte kontuak garraitzeko enpresa espezializatu gehiago.

Mikelek zure urratsak jarraitu ditu, bera ere margolaria da. Zer desberdintasun dago bata eta beste artearen munduan egin duzuen ibilbidean?

Nik gaztetatik neukan argi pintorea nahi nuela izan, baina garai hartan ez zen batere erraza bide hori hartzea, ez zegoen ondo ikusita. Nire buruaz beste egitea bezalakoa zela esaten zidaten. Gauzak horrela, dekorazioa ikasi nuen. Nahiko erabilgarri egin zitzaidan, egia esan, eta margolari bezala askotan aplikatu izan dut bertan ikasitakoa.

Mikelek txikitatik margotu du. 13 urterekin Artziniegako Margo Lehiaketan parte hartuko zuela esan zidan. Erakusketa egin zenean hura ikustera etorri zen gizon bat liluratuta geratu zen semeak obraren inguruan emandako azalpenaz, eta obra erosi zion 300 eurorengatik. Egun horretatik aurrera zaletasunak ziztu bizian egin zion gora. Lehiaketa askotara joan ginen, eta guztietan lortu zuen lehenengo postua bere kategoriaren barruan.

15 urte bete zituenean Bilboko Goya paper dendak antolatutako txapelketan eman zuen izena. Txapelketa horretan ez zegoen gazteentzako kategoriarik, 15 urtetik aurrerako edozeinek hartu zezakeen

parte. Txapelketa hura ere irabazi zuen, 1.800 euroko sari eta guzti. Nerabezeroan, ordea, utzi egin zion pintatzeari, erabat alboratu zuen zaletasuna

Unibertsitate garaian Madrilera joan zen ingeles filologia ikastera, oso gogoko du irakurtzea eta. Karrera erdian zegoela berriro hasi zen pintatzen. Hasieran guri ez zigun ezer esaten, baina bazebilen. Guztiok bizi dugu horrelako krisiren bat nerabezeroan, baina ezin diogu ihes egin barnean dugun pasioari.

Madrilen bizitzen jarraitzen du Mikelek orain. Higiezin agentzia batean egiten du lan komertzial bezala bizitza ordaindu ahal izateko, eta bien bitartean estudio txiki bat dauka, bertan sortzen du.

Ibilbide oso ezberdinak izan dituzue orduan.

Egia da aita margolari bat duzunean gauzak errazago jartzen zaizkizula honetara dedikatu nahi baduzu zure bizitza. Baina egoera honek ere badu bere alde txarra, askotan oztopo dena: zure aita margolaria bada zuk ezin duzu ildo beretik itsu-itsuan jo. Zer zara bestela? Zure aitaren kalkomania bat besterik ez.

Aitaren figurarengandik aldendu beharra dago. Mikel, zorionez, nortasun handiko pertsona da; beti lehenetsi du bere kriterioa.

Estiloari dagokionean, zer desberdintasun daude batoren eta besteren artean?

Biok egiten dugu oleoarekin lan baina teknika zeharo desberdina da, tematika ere desberdina da. Nik, noski, denbora gehiago

“Ni lau aldiz izan naiz Reina Sofia sarirako hautatua, eta semea bitan. Finalistak izatera ere iritsi gara”

daramat pintatzen eta fase gehiagotatik igaro naiz. Hasieran hiri-eszena asko egiten nituen. Orain, ordea, gehiago jo dut eszena lausoagoetara, paisajistikoagoak, non egitura horizontalek eta ortzimugek pisu handia artzen duten.

Mikelek elementu urbanoak margotzen ditu, baina beti ere giza-irudia erdian jarritz, asko interesatzen baitzaio hori. Kanean aurkitzen dituen pertsonaiak margotzen ditu. Reina Sofia sariketarako, adibidez, banku batean eseritako agure bikote bat erretratatu du, bizitzari eutsi besterik egiten ez dugun etapa hori irudikatu nahian.

Oso desberdina da batakin zein besteak egiten duguna.

Reina Sofia sariketaz gain bestelako lehiaketetan ere aitortzak jaso dituzu.

Bai, BMW Pintura saria izan da parte hartu dudana sariketa garrantzitsuenetako bat. Reina Sofiak baino sona handiagoa du honek. Madrilgo Errege Antzokian egiten da sari banaketa eta pertsona famatu asko hurbiltzen dira. 2014an ohorezko domina eman zidaten bertan.

Granadako Motril herrian ospatzen den Ramon Portillo lehiaketan ere jaso nuen ohorezko aitortza. Gehiago izan dira ere.

Ofizios pintorea zara zu. Gaur egungo egoeran ez da langintza erraza izango.

Nahiko gaizki dago egoera oro har, eta pandemiak ez du batere lagundu. Nik pintura klaseak

“Aitaren figuratik aldendu beharra dago. Mikel, zorionez, nortasun handiko pertsona da; beti lehenetsi du bere kriterioa”

ematen ditut Artziniegan eta Gordexolan, 20 urte baino gehiago daramat horretan. Gero, ahal dudana neurrian, obrak saltzen ditut. Bestelako ekimenak antolatzen ditut ere: erakusketak estudioan, topaketak...

Kexaako 'Ametsen Hariztiaren' atzetik ere zaude zu.

Azken urtean egindako proiektu nagusietakoa da. Arcos de Quejana jatetxeko arduraduna nire laguna da, eta berak proposatu zidan egitasmoa jatetxean esposaketa txiki bat aurkeztu nuen egun batean.

Ordurako hariztiaren lehengo fasea gauzatu zegoen; baso solidarioa deitzen zen, zuhaitz bakoitza gobernuz kanpoko erakunde batera lotua baitzegoen. Proposatu zidan zuhaitz bakoitzaren enborrak margotzea. Proiektuan murgildu eta ni arduratu nintzen zuhaitzak margotuko zituzten 25 artistak lotzen eta kudeatzen. Horri esker zer eginga izan nuen pandemiaren lehenengo hilabete horietan.

Proiektuak aurrera jarraitzen du, eta laster Gasteizen aurkeztuko dugu 'Ametsen Hariztia', erakusketa berezi baten bidez. Enbor margotuen argazkiak eta artisten obrak tartekatuko ditugu bertan.

Baduzu beste proiekturik esku artean?

Bai, badut pandemiak hainbatetan zapuztu duen proiektua: 2020an zazpi obra bidali nituen Taiwanen, Taipei hirian, Art Revolution erakusketa ezagunean aurkezteko. Dena ondo bidean, maiatzean egin ahalko da behingoz.



Moonshine Wagonen disko berria kalean



Lau musikaririk osatzen dute taldea gaur egun. Moonshine Wagon

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Self-destruction izango da Moonshine Wagon taldearen laugarren diskoaren izenburua. Gaur-martxoak 9- plazaratu dute lana, baina lehen singela iragan astean aurkeztu zuten dagoeneko. Janari azkarra da kantaren izena, eta euskara hutsez egin dute.

Abesti horretako letra da, hain zuzen, diskoak duen zorrotzeta, Goiatz Dutto taldekidearen esanetan. "Diskoan bildu nahi izan dugun kritika sozial guztia barnebiltzen du, janari azkarra metafora moduan baliatuta. Scroll egiten dugu gure sakelakoan pantailan eta 15

segundoko storyak kontsumitzen ditugu sare sozialetan, ez dugulako denbora gehiagorik edukia gozatu eta baloratzeko, eduki hori egiteko ordu, egun, hilabete edota urteak baliatu behar izan diren arren".

Kritika soziala ardatz

9 abesti ditu diskoak, "bonus track batekin batera". Duttoren hitzetan, album "kontzeptuala" plazaratu dute, "janari azkarrarekiko" kritika soziala ardatz hartuta. "Fast food'-a edo 'janari azkarra' hartu dugu bizitza estilo moduan: dena bizi, dena iragankor, dena pilotu automatikoa jarrita eta gauzei merezi duten balio, denbora eta estimua eskaini gabe".

Gozategi, Izate Faltsua eta Dupla taldeek girotuko dute Korrika hasiera Amurrion

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Hizkuntza gutxitu baten aldeko mundu mailako ekimen handienaren edizio berria Amurriotik abiatuko da, datorren martxoaren 31an, osteguna. Gutxika, ari dira iragartzen egun horretan Amurrion egongo diren ekintzak. Izan ere, AEK-ek egun osoko egitaraua prestatu du Korrikaren hasiera girotzeko.

Oraindik egitaraua publiko egin ez duten arren, goizetik iluntzera arte egongo dira ekintzak Amurrioko kaleetan barrena. Besteak beste, txarangak, kale animazioa, azoka eta era guztietako ikuskizunak iragarri dituzte. Arratsaldeko 16:00retan

egingo dute Korrika hasieraren ekitaldi nagusia, Amurrioko Juan Urrutia plazan bertan. Biaste geroago Donostian irakurriko den mezua lekukoan sartu, eta 16:30etan abiatuko dute Korrikaren 22. edizioa. Lehenengo kilometroak herrian zehar egingo dituzte, eta jarraian Aiara eta Artziniegara zuzenduko ditu urratsak euskararen aldeko ekimenak.

Kontzertuak Amurrion

Martxoaren 31an Amurrion egongo den musika eskaintza da, honezkerok iragarri duten kontuetako bat. Gozategi eta Dupla taldeak arituko dira eguna oholta gaintetik girotzen, Aiaraldeko Izate Faltsua taldearekin batera.

JEZen grabatuko du Luis Vil amurriarrak bere filma labor berria

Testua
Aitor Aspuru Saez

Filma labor berri bat prestatzen ari da Luis Vil zinemagilea. Relaciones de poder da proiektuaren izenburua eta, tituluak iradokitzen duen bezala, boterea izango du ardatz. Foucault filosofoak botereari buruz eginiko hausnarketak hartu ditu Vilek inspirazio iturri bezala. Azaldu duenez, klase sozial altuetako zein baxuetako pertsonaiak izango ditu filmak,

baina protagonista bakarra egongo da: boterea.

JEZ eszenatoki

Pelikularen gidoia amaitu berri du Vilek, eta grabaketak prestatzeari ekin dio dagoeneko. Lotuta ditu dagoeneko lokalizazio konplexuenak.

JEZ lantegia da horietako bat. Vilek bertan egiten du lan, eta toki egokia iruditu zaio filmeko hainbat eszena grabatzeko. Bere lankide batzuk ere agertuko kamara aurrean.

Ibilbide luzea

Musikari gisa hasi zuen bere sorkuntza prozesua Vilek, baina zinemagintzan ere murgildu zen duela 10 urte baino gehiago. Ordutik hona hainbat filma labor eta bideoklip grabatu ditu, Aiaraldean gehienak. 2015ean plazaratu zuen bere lehen filma luzea (eta, momentuz, bakarra): Escisión. Ibilbide luzea egin zuen pelikula horrek zinema jaialdietatik. Berlinaleko azokan egon zen, besteak beste.

#KorrikaAiaraldean

Argazki Lehiaketa

Parte hartzeko:
Bidali apirilak 10 baino lehen argazkia(k), egilearen izen-abizenak, kontakturako telefonoa eta herria postaz erredakzioa@aiaraldea.eus helbidera, edo telefonoz 688848152 zenbakira.

Saria:
Atxubi tabernan 4 lagunentzat afaria
(100 euroan zenbatetsitako eskaintza gehienez)

Irabazlea:
aiaraldea.eus webgunean erabakiko da, boto sistema bidez.

Bozketa fasea
Apirilak 11-17 (apirilaren 18an jakinaraziko da irudi garailea)

Korrikaren jarraipen berezia:
aiaraldea.eus/bereziak/korrika

AIARALDEA KOMUNIKABIDE FAKTORIA
www.aiaraldea.eus

kultura



ITXASO ESCONDRILLAS (Laudio, 1985) PISTA ESTALIKO EUROPAKO ATLETISMO TXAPELKETAN ZILARREZKO DOMINA LORTU DU BRAGAN (PORTUGAL), 1.500 METROKO PROBAN.



Testua
Aitor Aspuru Saez

Itxaso, sare sozialetan esan duzu ezustean harrapatu zaituela zilarrezko domina lortzeak, zergatik?

Duela 14 hilabete ama izan nintzen eta, ondorioz, egoera nabarmen zaildu zait entrenatzeko eta lehiatzeko. Lehentasuna nire haurra da.

Hala ere, hasi nintzen entrenatzen eta oso ondo sentitzen nintzen, eta ingurukoek ondo ikusten ninduten. Dena den, lehentasunen aldatetarekin, agian ez nuen sentitzen horrenbesteko presioa.

Horrela, Espainiako Txapelketan bigarren sailkatu nintzen 800 metroko eta 1.500 metroko probetan.

Gauzak horrela, Europako Txapelketara joan nintzen ea

zer gertatzen zen ikustera. Berez, lasterketa hasi baino lehen begiratu nituen markak eta laugarren postuan nengoen, baina azken asteotan oso ondo sentitu nintzen.

Hain zuzen, senarrari aipatu nion ondo sentitzen nintzela eta berdin zitzaidala marka. Lasterketa hasita, dena emango nuen, baina horren emaitza onik ez nuen espero.

Ez zen erraza izan, hasieran erritmoa motela izan zen, baina berehala bizkortu zen, gero eta gehiago, eta oso ondo sentitu nintzen.

Zure kirol ibilbidean egin duzun lasterketarik onena da?

Bai, uste dut baietz. Behin baino gehiagotan irabazi dut Euskadiko Txapelketa, baita senior mailan ere, baina Europara ateratzen zarenean egoera oso ezberdina da. Badago jendea lanik egiten ez duen jendea, soilik entrenatzen du goiz eta

arratsaldez. Hori ez da nire kasua. Hortaz, esan daiteke nire 25 urteko ibilbidean unerik garrantzitsuena.

Nola lortzen duzu ama izatea, lan egitea eta entrenatzea aldi berean?

Jende guztiak esaten du oso zehatza izateko beharra dagoela planifikazioan, baina egia esanda, nire senarra ere atleta izan zen, oso ona, eta ulertzen du eta laguntzen dit planifikazioan.

Nire entrenamenduetara ekartzen dit haurra ni animatzeko. Laguntza handia da eta berak nahi du ere azken lorpen hauek bereziak izatea.

Edonola ere, zerbait egin nahi duzunean benetan, topatzen duzu modua. Ama izan baino lehen astean behin atsedena hartzen nuen eta egunero bi orduz edo bi ordu eta erdiz entrenatzen nuen. Orain, hiritik urrun bizi garenez, gimnasioa

**“Erditu ostean,
badakit zer
den benetan
sufritzea, eta
orain atletismo
pistakoa
ez zait
hainbestera
iruditzen”**

**“Duela 14
hilabete ama
izan nintzen eta,
ondorioz, egoera
nabarmen zaildu
zait entrenatzeko
eta lehiatzeko.
Lehentasuna nire
haurra da”**

etxean prestatu dut. Horrekin denborak murrizten ditut eta pistan serieak baino ez ditut egiten.

Zure markak nola aldatu dira amatasunaren ondorioz?

Jende askok esaten du amatasunarekin errendimendua hobetzen dela. Nire kasuan hori gezurra da. Markak berdindu ditut eta 800 metroan hobetu dut bi segundotan, baina ez da horren erraza. Amatasunarekin aldatzen da zure pentsaera, badakizulako zer den benetan sufritzea. Pistara ateratzean, oso argi daukat erditzearen osteko minak ez duela konparazioarik.

1.500 metroko lasterketan 4 minutuz sufrituko dudala? Erditzearen ostekoa bai izan zela sufrimendua eta ez hori!

Asko aldatu da zure kasuan lehiatzeko modua?

Bai, ni lehen oso urduri jartzen nintzen eta noizean behin

ondo ateratzen zen, baina urduritasunak ez zidan uzten gozatzen eta estresa sentitzen nuen.

Orain, ordea, lehiaketetara umearekin, senarrarekin, aitarekin, familiarekin joaten naiz eta beste modu batean sentitzen dut. Zoriontsu sentitzen naiz. Azken lehiaketetako argazkiak ikusi ditut eta irteera baino lehen pozik nengo.

Europako Txapelketaren azken itzulian bakarrik pentsatzen nuen nire haurran. Heldu nintzenean, bakarrik pentsatzen nuen ea non ote zegoen txikia. Hortaz, niretzat amatasunak ematen dizuna da kriston indarra, barrutik ateratzen da lehoia. Eta ez bakarrik lehiaketan, oro har, bizitzan piztia duzu barruan.

Nire kasuan, erditzea oso zaila izan zen eta zenbait muga gainditzeko balio izan dit, sufrimenduari dagokionez. Bestalde, entrenatzeak balio du eguneroko ardurak eta buruhaustek atzean uzteko. Niretzako denbora da. Horrez gain, lehiaketan ez dut estresik sentitzen, naiz eta irabazi nahi dudana. Hala ere, ez da horren garrantzitsua. Jadanik dena ez da nire burua eta nire zilborra, nire pertsona asko daude eta.

**“Momentuz ez
daukat iraungitze
datarik. Helduko
dela? Bai, ziur,
eta barneratu
beharko dut,
baina heltzen
denean egingo
dut”**

Nolako izan da Portugaleraino joatea umearekin?

Horrek bai sortzen duela estresa. Umea oso txikia da, 14 hilabete baino ez ditu. Lehiaketa larunbat eguerdian zen eta ostiralean atera ginen etxetik, autoz. Biok eta aita.

Haurra, jakina, aspertu zen autoan, negarrez hasi zen... Hara heldu ginenean etxe batean lo egin genuen, umeak espazioa izateko, ez hotel batean, logela batean sartuta ez egotearren. Estresa sortzeko modukoa. Zorionez, haurra ondo portatzen da, ohituta baitago leku batetik bestera joatera. Astebururo etxera goaz familia ikustera eta lehiaketetara nirekin dator.

Finen, nire egoera ez da beste batzuen bezalakoa. Beste batzuk hegazkinez doaz txapelketara, lasai-lasai, janaria, trona edo gurditxoa aintzat hartu gabe. Baina nik ez dut egoera aldatzen.

Pentsatu duzu noiz arte lehiatu nahi duzun?

Oro har, hori galdetzen didatenean ez daukat erantzunik. Helduko da une bat zeinean ilusiorik ez dudana izango. Orduan izango da momentua kirola beste moduan hartzeko eta txapelketak alde batera uzteko.

Dena den, momentuz emaitzak onak dira, ondo sentitzen naiz eta nire buruak beste modu batean barneratzen ditu lehiaketak. Momentuz ez daukat iraungitze datarik. Helduko dela? Bai, ziur, eta barneratu beharko dut, baina heltzen denean egingo dut.

kirola

FUTBOLA

Iñaki Bea izendatu dute Dominikar Errepublikako futbol selekzioko hautatzaile

Testua
Aitor Aspuru Saez

Iñaki Bea hurrengo astean joango da Dominikar Errepublikara hango futbol selekzioaren ardura hartzeko. Printzipioz, bi urtez hautatzailea izangoda, bainaberebeteharrak zabalagoak izango dira. "Gogorra izango da, hango futbol eredu profesionalizatu behar baitut, entrenamenduen metodologiatik hasita", azaldu du amurriarrak.

Abentura horretan sartuta zegoela, Lliga Smartbank-en aritzen den klub baten eskaintza heldu zitzaion, CD Mirandésena, hain zuzen. Hala ere, jokalaria ohiak eutsi egin dio Dominikar Errepublikako federazioarekin duen konpromisioari

Ekainean Nazioen Ligako 4 partida jokatu ditu Dominikar Errepublikak, eta bere multzoko lehenengo postua lortuz gero, Urrezko Koparako sailkatuko lirake.



JORGE BENGEOA

BORROKALARIA

Borrokatzeari debekatu didate 40 urte baino gehiago izateagatik

Jorge Bengoa dut izena, 42 urte ditut eta nire pasioa kick boxing da. Duela gutxi Euskadiko Boxeo Federazioak ringean borrokatzea debekatu didalako idatzituz zutabe hau.

Prest nengoen Aiara Fighters Generation ekimenaren edizio berrian borrokatzeko Amurrion, eta duela hiru aste dei bat jaso genuen, jada ezin dudala borrokatu esanez. Ez ziguten beste azalpenik eman. Automatikoki jarri ginen harremanetan federazioko presidentearekin, eta hark esan zigun ez dagoela zer eginik.

40 urtetik gorakook ezin dugu ring batean borrokatu eta muga bat jarri behar dute, antza. Harrigarriena da Zarautzen borrokatu nintzela azaroaren 27an, eta ez zidatela ezer esan. Alegia, 40 urte baino gehiago ditudanetik ring batean 5 borroka izan ditut. Lehendakariaren hitzetan, borrokatzen uzten badit, 40 urtetik gorako pertsona gehiagok egingo lukete.

Esan digunez, ni tatami batean baino ezin naiz borrokatu, baina ring batean ez. Ez zait logikoa iruditzen, tatami batean borrokatzea ring baten gainean borrokatzea bezain oldarkorra izan baitaiteke. Era berean, oso bidegabea iruditzen zait deia jasotzea bi hilabete baino gehiagoko gauraldia egin eta bi astera, ni horretarako entrenamendua egin izan ostean.

Nire sasoi fisikoa bikaina da, eta kirol honetan ematen dudana denbora ia esklusiboa izan da azken urteetan. Ez dut ulertzen zergatik beste kirol batzuetan ez dagoen adin-mugarik, eta gurean bai. Logikoa al da 56 urteko pertsona batek ia kontrolik pasatu gabe maratoni bat egiteko aukera izatea? Egia da kirol hau arriskutsua dela osotasun fisikorako, baina esfortzu-kontrolak pasatzea bezain erraza izango litzateke, lehiakidea kirola egiteko prest dagoen ala ez egiaztatzeko.

Nire ustez, adina zenbaki bat baino ez da, eta hori praktikatzeko dedikazioa eta prestakuntza da garrantzitsua. Pena handia da jakitea adin bat betetzen duzunean gehien gustatzen zaizuna egitea debekatuko dizutela eta horrek iraingitze-data duela.

ATLETISMOA

3. postua lortu du Garazi Larrakoetxeak altuera jauziko Espainiako Txapelketa Absolutuan, bere marka pertsonala gaindituta



1,78 metroko saltoa egin zuen Larrakoetxeak. G.L.

Testua
Txabi Alvarado Bañares

1,78 metroko saltoa egitea lortu zuen Larrakoetxeak. Duela hiru aste eginiko Euskadiko Txapelketa Absolutuan, aldiz, lehen postuan geratu zen.

Atleta gaztea oso pozik azaldu da lortutakoarekin. "Oso lorpen handia dela uste dut. Aurten, gainera, oso maila altua egon da Euskadiko Txapelketan, eta Espainiakoan podiumera iristea ez da erraza", azaldu dio Aiara Bengoa Komunikabideari.

Marketan ere "oso erregular" aritu dela uste du kirolariak, eta baikor azaldu da aire libreko

denboraldiari begira, "pista estalia delako oinarria". "Horretan ondo arituz gero, logikoa da pentsatzea aire librekoan ere ondo arituko naizela, lesiorik edo bestelako gorabeherarik ez baldin badut", argitu du

Aire libreko denboraldia

Apirilaren amaieran hasiko da aire libreko denboraldia, eta bertan ere antzeko helburuak izangoditu Larrakoetxeak: bere marka pertsonala hobetzea eta Espainiako Txapelketako podiumera igotzea. Hiru liga, Euskadiko Txapelketa eta Espainiako Txapelketa izango ditu zita nagusi, bidean atera

daitezkeen bestelako topaketa batzuekin batera.

Beste atleta batzuk baino ohituagoa dago Larrakoetxea aire librean aritzera. Iruñean entrenatzen du, eta bertan ez dago pista estalirik. Gauzak hala, kanpoan egin behar dituzte entrenamenduak, baita neguan ere. "Zizurreko pista estalira jo ahal izan dugu aurten, astean behin, baina orain arte aire librean aritu gara pista estaliko denboraldia prestatzen".

Gauzak hala, datozen hilabeteetako erronketarako prest dagoela uste du kirolariak.

ALPINISMOA

Espainiako Alpinismo Taldeko kidea izango da Tasio Martin urduñarra aurrerantzean

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Espainiako Mendi Federazioaren Alpinismo Taldeko kidea berria izango da aurrerantzean Tasio Martin kirolari urduñarra. 14 gaztek parte hartuko dute guztira FEDMEko talde berrituan, 2024ra arte.

Iragan otsailaren 25etik

otsailaren 27ra egin zituzten Espainiako Alpinismo Taldean sartzeko frogak. 16 mutilek eta 16 neskek hartu zuten parte Panticosan egindako topaketan.

Selekzioan parte hartzeko hautagaiek asteburu zorrotzari egin behar izan zioten aurre. Larunbat goizean erresistentzia eta mendiko eski probak egin zituzten. Arratsaldean, berriz, eskaladarako gaitasunak neurtu

zituzten Gratal mendiaren magalean. Igandean egin zuten sailkapen faseko azken ahalegina: izotz eta eskalada mixto proba Canal Roya mendian.

FEDMEk aste hasieran iragarri ditu azterketa gainditu duten hautagaien zerrenda. Gauzak horrela, 21 urteko urduñarra alpinismo taldearen parte izango da bi urtez, Mikel Zabalza mendizalearen gidaritzapean.

herriko plaza



Iera

Jarrantu bulegoa sorgintzen zure landareekin, zure lankideen partetik

Zure lankide maitagarriak



**BIDALI
ZURE
ZORION
AGURRA!**

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus helbidera eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko dugu. Martxoaren 23an argitaratuko da hamabostekariaren hurrengo zenbakia.

Denborapasak

ERRAZA

	1	4	5		2	9		
5	7	9		4		2		8
	2					5		
		2	3					
		8		2	9	3		
				8				
		1	8					3
				3	4	8	7	
			6		7	4		

ZAILA

	4	8	2	7		3		
		3	5					
5		7		8			6	4
4							7	3
6	3		8					
2				3		8	9	
						6	5	
					2	7	4	8
		4		6				2

DENBORAPASEN SOLUZIOAK Sudoku, hitz-gurutatu eta hitz gezidunen soluzioak webgunean ikusgai: <http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak>

Zozketa



Errigorako produktuen saski arrunta eta saski ekologikoen zozketa egingo ditu Aiaraldea Komunikabideak

Errigorako produktuen zozketa.

Parte hartzeko sartu www.aiaraldea.eus atarian **Zozketaren data:** martxoak 18, 12:00etan.

KOKO RIKO

BALIABIDE GUNEA

DISCONNECTATS

Egilea: Miriam Tirado eta Joan Turú

Urtea: 2020

Adina: 3 urtetik aurrera

Familia bateko kideek pantailekiko duen menpekotasunaren ingurukoa. Denbora pasata egoera konplikatzen doa eta haien artean itzaltzen doaz. Nola konektatu berriro? Gure ohituren inguruan hausnartzeko eta kontzientzia hartzeko liburua da.



HARI IKUSEZINA

Ilustratzailea: Miriam Tirado

Urtea: 2022

Nurak jakin du zilborrean ezkutatzen den sekretua. Bertatik hari ikusezin bat ateratzen zaiola daki, maite dituen pertsonekin lotzen duela. Berarekin ez daudenean, badaki hariaren bitartez haiekin lotuta dagoela, denboraz eta espazioaz haratago.



JOLAS GUNEA

OLABEAGAKO JOLAS PARKEA

LEKUA: Bilbo (Bizkaia)

AZALPENA: Jolas parke honetako egurrezko estrukturak hiru mailatan banatuta daude. Behean ziburuak aurkitzen dira, erdiko mailan txirrista handi baterako sarrera goiko mailan berriz altxor eder bat; Piraten itsasontzia! Horretaz gain, egurrezko etxetxea, tirolina... Parkea itsasoan girotuta dago.



AZENARIO PASTELA



OSAGAIK

- 220g azenario - 13 datil
- 200g oloa irina - Gatz pixka bat
- 150ml ur - Legami zorrotzkoa
- 50ml oliba olio - 30g intxaur
- 8g kanela hautsa - Koko edari lata

NOLA EGIN?

1. Azenarioa zuritu eta birrindu. Osagai guztiak nahastu (koko edaria izan ezik).
2. Labeko erretiluan gehituko ditugu eta labean sartu, 30 minutuz 180°C-ra.
3. Koko edaria hozkailuan sartu, alde solidoa eta likidoa banandu daitezten.
4. Gaineko frosting-a prestatuko dugu: koko edariaren parte solidoa hartu eta ontzi batera gehitu, kanela pixka bat gehitu eta nahastu.
5. Azkenik, pastela labetik atera, hozten utzi eta hotz dagoenean, gainetik frosting-a botako dugu eta prest!

KOKO RIKO

KOKORIKO

HEZKUNTZA FAKTORIA

Zer da neska edo mutila?

Aukera berdintasuna, zaintza, lanen banaketa parekidea, soldata arrakala... Egun hauetan borror dauden gaiak dira. Martxoan gaude eta aste honetan Emakumearen nazioarteko eguna izan da.

Garai hauetan entzuten ditugu gizonak esanez, beraiek ere ardurak hartzen dituztela, baina arrakala gaur gaurkoz handia da oraindik. Batzuetan ere entzun izan ditugu gizonak esanez zaintzan laguntzen dutela, ardura beste bati utziz.

Zaintzak emakume aurpegia du, haurren ardura gaur gaurkoz emakumeak hartzen du.


Jendarteak, eta guk honen parte izanik, guk ere, haurra oso txikitatik hasten gara rol ezberdinetan banatzen. Jendeak haur jaio berri bat ikustean, zelan dagoen edo gurasoei zelan dauden galdetu aurretik hanka artean zen duen jakin nahi du. "Zer da neska edo mutila?" Zenbat gauza gordetzen dituen galdera txiki horrek.

Galderak, erreala ez den mundu bitar batean banatzen gaitu pertsonak. Gizakia ez da bitarra ez sozialki ezta biologikoki ere. Espektra handia dago eta bi genero soilik adieraziz eta sozializatuz, beste pertsona guztiak zapaldu egiten ditugu.

Gainera, sexua jakitearen helburu bakarra, haur hori bestela nola tratatu ez dakigulako da. Eta ez badakigu nola tratatu esan nahi du, ezberdin tratatzen ditugula neska bada edo mutila bada. Hau da, jaiotzetik hasten gara genero eraikuntza estereotipatuarekin.


Beraz galdera horren atzetik, haurra gelatxo batean sartzeko jendartearen beharra soilik azaleratzen du. Oraindik ere urdina eta arrosa diren bi gela horiekin, horrek duen rol estereotipatu guztiarekin. Noski zaintza ere emakumei igorri/inposatuz txiki txikitatik.

Helduak eredu izan gaitezen eta hezi ditzagun haurrak parekidetasunean, gu eredu izenik eta gelatxoetan sartu gabe.



Irudi engainariak

Puskatxo hauetatik erdiak irudi handitik hartuta daude eta beste erdiak engainariak dira, hau da, ez datoz irudiarekin bat, osoantzekoak izan arren. Bereiz itzazu.



Bide batez, marraztu iezaiozu zakur iletzu bat alboan eta margotu.



HOZKIRRIA

LANGARRA

ERREKA-LAINO

ENBATA



ZIRIMOLA

BAINA ATERKIA BEHARKO DUT ALA EZ DUT BEHARKO?!

DENA LANBROTUTA IKUSTEN DUT



Zer?!

Ba al dakizu nola esaten zaion tramankulu honi? Haizearen abiadura eta norabidea neurtzeko balio du eta ez da A letraz amaitzen.

ISOBARA

ARRANPALO

BELOZIPEDO

ARRANGURA

HAIZAGAILU


ANEMOMETRO

UFADA-PALA

Bakoitzari berea

Lotu hitz bakoitzari dagokion irudia. Kontuan hartu modu bat baino gehiago izan dezakegula gauzak izendatzeko, eta hemen ageri dena ez dela beharbada zuk ezagutzen duzuna.

SOLUZIOAK



Kontra

Aiaraldetik mundura

James Sanders




JON BLANCO

JAIOTERRIA
LAUDIO (1996)

BIZILEKUA
HEGO AFRIKA

BIDAIAREN ZERGATIA
"GLOBAL TRAINING" BEKAREKIN, BIOLOGIA
GRADUAN IKASITAKOAK PRAKTIKAN JARTZEA

HEGO AFRIKA



DESKRIBAPENA

Afrikako hego muturreko estatu burujabea da. Pertsona zurien nagusitasuna bermatzeko Apartheidak markatu du herrialdeko XX. mendeko historia, 1992an abolitua izan zen arte. 1994an egin zituzten lehen hauteskunde demokratikoak, eta Nelson Mandela izendatu zuten presidente.

AZALERA

1.221.037 kilometro koadro.

BIZTANLEAK

60,1 milioi biztanle.

HIZKUNTZA

Afrikaans, zuluera, xhosa, ingelesa eta beste 11

Argitaratzailea:

Aiaraldea Kooperatiba Elkarte

Tirada: 10.000 ale.

Maiztasuna: Hamabostekaria

Lege gordailua: BI-1230-2013

Posta elektronikoa:

egunkaria@aiaraldea.eus

agenda@aiaraldea.eus

agurrak@aiaraldea.eus

Publizitatea: publizitatea@aiaraldea.eus

Tifnoa: 688 62 53 94

Helbidea: Errotari kalea 4-8 pabilloia,

Laudio. Araba. 01400

Telefonok: 94 656 85 54/688 62 59 00

Web-gunea: www.aiaraldea.eus

ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea

Aldizkariak ez du bere gain hartzen

iritzi artikuluetan, zein egindako

elkarriketetan adierazitakoaren

erantzukizuna.

ESKER BEREZIAK BANATZAILA

BOLUNTARIOEI:

Eider Solatxi, Aitor Fernandez de Pinedo,

Koldo Rodriguez, Jon Catalan, Christian

Aleman, Aitziber Alava, Endika Arribas,

Jabi Asurmendi, Iñaki Iarrakoetxea,

Elixarrait Mendiguren, Gemma Corbella,

Lander Ria, Cristina Gonzalez, Eunate

Molinuevo, Andima Landaluze, Xabi

Ugalde eta Alberto Martinez

“Hegazti eta ugaztunen aktibitatea monitorizatzea da gure egin beharra”

Zerk eraman zaitu Hego Afrikara?

Hego Afrikara azaro amaieran joan nintzen, Euskal Herriko Unibertsitateak eskaintzen duen “Global Training” beka jaso nuelako. Beka honek atzerrian 6 hilabetez zuk ikasitakoa praktikan jartzeko eta trebatzeko aukera eskaintzen dizu. Nik biologia ikasi nuen EHUn, eta nire lana hemen, batik bat, hegaztien eta ugaztunen jarraipenean zentratzen ari da.

Zertan datza monitorizatze lan hori?

Lehenengo bi hilabeteak Lurmutur Hiria-n eman nituen, eta han *African Oystercatcher* txori espeziearen ugalsasoa monitorizatu genuen, espezie horren egoera ebaluatzeko. Lan hau Robben Island irlan burutu genuen, leku pribile-

giatu batez bakarrik natura aldetik, garrantzi historikoagatik baizik. Robben Island-en Apartheid erregimenaren kontrako aktibista asko atxilotu zituzten, euren artean Nelson Mandela. Robben Island-ek injustiziaren aurrean askatasunaren aldeko borroka sinbolizatzen du.

Behin aurrekoa amaituta, Hego Afrika barnealdean dagoen Karoo eskualdera etorri nintzen, ekosistema nahiko lehor batera. Hemen naturaren kontserbazioa eta inpaktu baxuko abeltzaintza bateratu nahi duen proiektu batekin elkarlanean gabilta. Helburu hori lortzeko, proiektuaren jabeak ekoturismo jarduerak eskaintzea erabaki zuen (txori eta ugaztunen behaketa, bertako biztanleen kultura eta bizimodua ezagutzeko tourak...). Gure eginbeharrak hemen, batetik, txori urtarren eta ugaztun gautarren aktibitatea monitorizat-

zea da, haiei buruz gehiago jakiteko. Bestetik, hemendik pasatzen diren bisitariak naturarekin zerikusia duten eginkizun txikitari inbolukratzen ditugu, txorien behaketan eta paisaiaren argazkigintzan, adibidez.

Apartheid-ak gogor markatutako herrialdea izan zen Hego Afrika, oraindik ere antzeman daiten honen arrastorik?

Bai, oraindik ere antzematen da. Apartheid-ak ezabatzeko zaila den marka bat utzi zuen gizarte hegoafrikarrean. Kontuan izan behar da Apartheid-a duela gutxi desegin zela, 1992. urtean. Hego Afrikak 28 urte daramatza demokrazian, eta ez da izan, ezta izaten ari, bide erraza. Pobreziak eta berdintasun ezak jarraitzen du, korrupzio-kasuek politika astintzen dute eta gizarte desilusionatzen ari da, langabezia

eta krimen-tasak altuak dira...honek ez du esan nahi gizarte justu batera heltzeko Hego Afrikak eta bere erakundeek euren iraganarekin “adiskidetzeko” ahaleginik egin ez izana, kontua da Apartheidaren itzala luzea dela, eta harengandik ihes egiteko denbora beharko dela.

Noiz duzu eskualdera bueltatzeko asmoa?

Ekaina edo uztailean zehar bueltatuko naiz. Kontratua amaitu ostean Hego Afrika zein modutan eta zenbat denboraz bisitatuko dudana erabakitzeke dut oraindik. Han, Euskal Herrian, txorien eraztunketa zientifikoa egiten duen proiektuaren batean kolaboratzea gustatuko litzaidake. Bitartean, landa-lanean aritzeko aukera eskaintzen didaten lanpostuak bilatuko ditut, atzerrira berriz joan naitekeela onartuta izanda.

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:

